



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 14a

89. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, egungo hitzarmen ekonomikoarekin Nafarroak duen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak zergatik erabaki zuen González Tablas kaleko administrazio-eraikin berrian lanean hastea udalaren nahitaezko lizentzia eskuratu gabe, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (3. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina. (4. or.).
- Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (35. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, egungo hitzarmen ekonomikoarekin Nafarroak duen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa.****ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egungo hitzarmen ekonomikoarekin Nafarroak duen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion

Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Gobernuko lehendakariak harridura sortu du Nafarroako herritarren artean, egiazkoak izatekotan oso kezkarriak diren adierazpen batzuk direla eta.

Gobernuko lehendakariak adierazi zuenez, Nafarroako ekonomia ez da bideragarria egungo hitzarmen ekonomikoarekin.

Zeintzuk dira, zehazki, Nafarroak dituen arazok, hitzarmen ekonomikoaren aplikazioari dagokionez, Gobernuko lehendakariak esateko Nafarroako bideragarritasun ekonomikoa arriskuan dagoela?

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

## **Galdera, jakiteko Gobernuak zergatik erabaki zuen González Tablas kaleko administrazio-eraikin berrian lanean hastea udalaren nahitaezko lizentzia eskuratu gabe.**

### *AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Gobernuak zergatik erabaki zuen González Tablas kaleko administrazio-eraikin berrian lanean hastea udalaren nahitaezko lizentzia eskuratu gabe.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Iragan maiatzaren bukaeran, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua González Tablas kaleko administrazio-eraikin berrira aldatu zuten.

Denbora luzez obretan aritu ondoren, eraikina erabiltzen hasi zen –431 langile daude han, eta eraikinak aparkalekua ere badu–, baina lehen erabilerarako eta irekitzeko beharrezkoak diren lizentziarik eskuratu gabe.

Agerikoa denez, laneko arriskuen arloan eta zenbait gorabehera direla-eta izan daitezkeen erantzukizunen arloan, asko dira lizentzia horiek ez izateagatik sor litezkeen arazoak. Hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

- Gobernuak zergatik erabaki zuen eraikin berrira aldatzea eta bertan lanean hastea udalaren nahitaezko lizentzia eskuratu gabe? Obrak onartu al dira eta ba al da berme-aldirik? Zer epe du berme-aldiak? Nola estali ditu Gobernuak eraikin horretan sor litezkeen erantzukizunak laneko arriskuen prebentzio-planik ez izateagatik, izan litezkeen istripuengatik, erantzukizun zibilagatik edota uholde edo suteengatik?

Iruñean, 2010eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Los Arcosko abiadura-zirkuituari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Deskribapena (5. or.).
- III. Helburua (9. or.).
- IV. Txostenaren norainokoa eta mugak (9. or.).
- V. Ondorioak eta gomendio orokorrak (9. or.).
- VI. Zirkuituaren eraikuntzari buruzko iruzkinak eta oharrak (11. or.).
  - VI.1 Gobernuaren jardunari buruz (11. or.).
  - VI.2. Operazioaren balio ekonomikoari buruz (12. or.).
    - VI.2.1. Operazioaren kostua. (12. or.).
    - VI.2.2. Proiektuaren bideragarritasunari buruz (14 or.).
  - VI.3. Legezko alderdiei buruz (15. or.).
    - VI.3.1. Obren adjudikazioari dagokionez (15. or.).
    - VI.3.2. Udalez gaindiko plan sektorialari buruz (17. or.).
  - VI.4. Eraikitzaileak lortutako etekinari buruz (19. or.).

- I. eranskina. Gehieneko aurrekontua, 2008-07-02ko akordioaren arabera (20. or.).
  - II. eranskina. Circuito de los arcos, s.l.-ren kapital soziala (20. or.).
  - III. eranskina. Sodena sozietate publikoaren xedea. (21. or.).
  - IV. eranskina beste zirkuitu batzuetako datu ekonomikoak, merkataritza erregistroaren arabera (22. or.).
  - V. eranskina. Aprobetxamendu unitateen balioa, irizpidearen arabera (23. or.).
  - VI. eranskina. Zirkuitua dela-eta samaniegok aurkeztutako, eginiko ekarpenen eta jasotako en zerrenda (24. or.).
- Grupo Samaniego, S.L. -k behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (25. or.).
- Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. SPRINek, behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (25. or.).
- Comptos Ganberaren erantzuna Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.-k (SPRIN) aurkeztutako alegazioei (34. or.).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko azaroaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, ondokoa erabaki zuen: Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztutako idatziak ikusita, erabaki zen Comptos Ganberari txosten bat egin zezan eskatzea, bi talde horiek aurkeztutako idatzietan eskatutakoari buruz hain zuzen.

Lehenbiziko taldearen idatzian eskatzen dena da txosten bat egitea "Nafarroako Gobernuak enpresa publikoen bidez Los Arcosko abiadura-

zirkuituaren eraikuntzan eta kudeaketan duen parte hartzeari buruz".

Bigarren parlamentu-taldearen idatzian, berriz, eskatzen da fiskalizazio-txosten bat egitea hurrengoak izan litzakeena helburu, "alde batera utzita erakunde horrek, egoki iritziz gero, zabaldu eta osatu egin lezakeela txostena:

Lehen: zehaztea Los Arcosko abiadura-zirkuituko obrak egin dituen eraikuntza-enpresak lortu dituen etekinak; enpresa hori, besterik ez bada esaten, Nafarroako Gobernuak SPRINen bidez gainerako akziodunekin batera partaidetza duen sozietatearen % 5aren jabe da.

Bigarrena: zehaztea ea eraikuntza-enpresari obrak adjudikatzeko prozedura, non ez baita mugarik edo lehiaketa publikorik izan, bat ote datorren legediarekin edo obra publikoen lizitazio-ko ohiko prozeduren parte ote den, nahiz eta inbertsio publikoaren zatia SPRIN enpresa publikoaren bidez egin".

Comptos Ganberak txosten bakarra egitea erabaki zuen bi parlamentu-taldeek eskaerei erantzuteko.

Lana talde batek egin du, urtarriletik apirilera bitartean; taldea osatzen zuten auditore batek eta auditoriako bi teknikariek. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak zortzi epigrafe ditu. Lehenbizikoa sarrera da; bigarrenean, zirkuituaren eraikuntza-prozesuaren deskribapena egin da; hirugarrenean eta laugarrenean lanaren helburuak, norainokoa eta mugak aurkeztu dira; bosgarrenean, lana egin eta hortik ateratako ondorioa eta gomendioak azaltzen dira; eta seigarrenean iruzkin batzuk egin dira txostenaren zenbait alderdiri buruz, txostena errazago ulertzeko.

Lan hau egiteko emandako laguntza eskertzen diegu Circuito de Los Arcos eta Sociedad de Promoción de Inversiones de Navarra (SPRIN) enpresa publikoetako langileei eta Los Arcosko Udaleko langileei.

## II. DESKRIBAPENA

Ondoren, zirkuituaren eraikuntzarekin zerikusia duten gertakari nagusiak azalduko ditugu, modu horretan zirkuituaren eraikuntzaren ikuspegi orokor eta historiko bat edukitzeko.

Bere sustapen-jardueraren barruan, SPRIN sozietateak aukera gisa aintzat hartua zuen Nafarroan abiadura zirkuitu iraunkor bat izateko proiektua, eta hasiak zituen lehenbiziko azterketak.

Samaniego enpresa-taldeak (hemendik aurrera, Samaniego), zeinak sustapena eta eraikuntza baititu jardun nagusi, aurreikusia zuen zirkuitu bat egitea, eta, horretarako, jadanik 2006an erosiak zituen lursailak Los Arcosen, kontratu pribatuen bidez.

Ekimen bi horiek bat egin zuten eta Circuito de Los Arcos, S.L. sozietatea eratu zen, non Samaniegok kapitalaren % 55eko zuen eta SPRINek gainerako % 45a. Ehuneko horiek aldatu egin ziren, eta, hala, Foru Administrazioa kapitalaren % 95 kontrolatzera pasa zen eta gainerakoa Samaniegoren esku gelditu zen, zeinak obrak egin baititu.

Eraikitzen ari den zirkuituan egin daitezkeen lehiaketen artean daude 1 formulako eta GP motoen entrenamenduak, eta, horretarako, 52 milioi inguruko kostua duten obrak egin ziren; horiek finantzatzeko, 20 milioi kapital erabili ziren, eta gainerakoa maileguren bidez finantzatu zen.

Hemen aurkezten ditugu prozesu honen akordio nagusiak:

2007ko urtarrila. Prentsako albisteen bidez egi-aztatu dugunez, komunikabideen aurrean aurkeztu zen Los Arcosen abiadura-zirkuitu bat egiteko proiektua. Agerraldi hartan izan ziren sustatzailearen (Samaniego) ordezkariak eta Udala. Proiektuaren inbertsioa sei milioi eurokoa izanzen zela kalkulatu zen.

2007-02-12: Samaniegok aholku-enpresa bati eskatu zion, 193.500 euro gehi BEZa ordainduta, idatz zitzala, hiru hilabeteko epean, zirkuitu baten oinarriko proiektu orokor bat eta eraikuntza proiektua.

SPRINeko Kontseiluan, Samaniegorekin gauzatu nahi zen proiektuaren berri eman zen, eta horretarako sozietate bat eratuko zela non SPRINek kapitalaren % 45 izanzen baitzuen.

Emandako informazioaren azalpenean adierazi zen zirkuituaren diseinu horrekin ezin dela inbertsioa berreskuratu zirkuituaren ustiapenaren zuzeneko etekinekin; errentagarria izan daitekeela kontuan hartzen badugu ingurura aberastasuna ekar dezakeela, baina hori, jakina, ez zaiola sustatzaileari bueltan etorriko zuzenean.

2007ko maiatzeko bideragarritasun azterlanak eta 2007ko abenduko plan estrategikoak diote emaitzak positiboak izanzen direla funtzionatzen hasi eta hirugarren urtean.

SPRINeko lehendakariari eta kudeatzaileari ahalmena eman zitzaien Samaniegorekin itun bat sinatzeko.

2007ko martxoa. Samaniegok sustatutako oinarritzko proiektua, non aipatzen baitzen SPRI-Nek, aldi berean, hasiak zituela horretarako azterlanak. Interes horiek bat egin eta akordio bat sinatu zuten zirkuitu bat elkarrekin sustatzeko, sozietate misto baten bidez. Aurrekontuak, ordain-sariak barne eta BEZa gabe, 16,5 milioi egiten zuten.

2007-03-13. Samaniegok eta arkitekto batek kontratu bat sinatu zuten egoitza sozialaren eraikinarren proiektua idazteko eta haren obra zuzentzeko.

2007-03-28. Samaniegok eta aholku-enpresa batek kontratu bat sinatu zuten bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan bat egiteko.

2007-03-31. SPRINeko Kontseiluari zirkuituaren proiektuaren berri eman zitzaion; aurreikusitako inbertsioa 20 milioikoa zen eta kapitala 8koa.

2007-05-14. Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektorial izendatu zuen Samaniegok sustatutako abiadura-zirkuitua; inbertsioa, bi fase-tan banatua, 28 milioi eurokoa zen.

2007-05-24. Circuito de Velocidad de Los Arcos sozietatearen protokolo erregulatzailer bat sinatu zuten Samaniegok eta SPRINek. Itun horretatik honakoak azpimarratzen ditugu:

Sozietatearen kapitala:

Sozietatearen kapitala handitzen joanen dira Samaniego (ehuneko 55) eta SPRIN (ehuneko 45), harik eta bi urteko epean 8.000.000ra euro iritsi arte

Finantzaketa:

Aldeek adierazten dute ezen inbertsioa 21 milioi eurora irits daitekeela, inbertsioaren % 40 gutxi gorabehera bazkideen ekarpenekin egin beharko dela, eta % 60 bazkideen ez beste batzuen finantzaketarekin.

Bazkideak ez direnen finantzaketa ezin bada lortu, aldeek konpromisoa hartzen dute partaidetza-maileguak egiteko sozietateari, honako portzentajeekin: ehuneko 25 Samaniegok; ehuneko 75 SPRINek.

Erosteko aukera:

SPRINek Samaniegori erosteko aukera gauzatzeko eskubidea ematen dio doan.

Erosteko aukera hori erabiltzeko epea hamar urtekoa izanen da, eta ezin izanen da erabili sozietatea eratu eta bost urte baino lehenago. Salneurria izanen da azken egoera-balantzean funts berekiek egiten dutena; hala ere, zenbateko hori

ezin izanen da SPRINek eginiko ekarpen guztiek egiten dutena –KPIaren arabera eguneratuta– baino txikiagoa.

Abiadura-zirkuituaren eraikuntzaren gaineko konpromisoak:

Eraikuntza-enpresaren hautaketa. Obrak exekutatu dituen enpresa Samaniegok hautatuko du; bere burua ere hauta dezake, edo parte den taldeko beste edozein enpresa ere bai.

Zuzendaritza fakultatiboaren hautaketa. Zuzendaritza fakultatiboaz arduratuko den enpresa Samaniegok eta SPRINek hautatuko dute, ados jarrita.

Proiektuaren zuzendaritza integralaren hautaketa. Zuzendaritza integralaz arduratuko den enpresa Samaniegok eta SPRINek hautatuko dute; ados jarri ezean, SPRINek hautatuko du enpresa hori.

Sozietateak, subrogatuta, Samaniegoren lekua hartuko du gorago aipatutako kontratuetan (lursailak, proiektuak, etab.), eta, beraz, Samaniegori ordaindu egin behar dizkio hark aurreratutako edo ordaindutako zenbatekoak.

2007-06-25. Circuito de Los Arcos, S.L. sozietatea eratu zen. Hasierako kapitala 2.000.100 eurokoa izan zen; horietatik, Samaniegok 1.100.100 euro hartu eta ordaindu zituen, eta SPRINek, berriz, 900.000 euro.

2007-07-16. Samaniegok Circuito de Los Arcos, S.L. sozietateari lursailak erosteko kontratu guztiak laga zizkion, eta sozietateak Samaniegori hark ordainduak zituen zenbatekoak itzuli zizkion.

Sozietateak konpromisoa hartu zuen Samaniegori eskualdatzeko, 240.000 euroren truke, Los Arcosko zirkuituari esleitzen zitzaizkion hirigintza aprobetxamendu tertziario eta balioaniztunak, zirkuituak kontsumitzen ez zituenak hain zuzen.

2007-08-02. Zuinketa-akta sinatu eta obrak hasi ziren.

2007-10-22. Nafarroako Gobernuak Los Arcosko abiadura-zirkuituko udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zuen.

2007-10-23. SPRINeko Kontseiluak, sortutako finantzaketa-beharrak ikusita, erabaki zuen obrak bat-batean gelditzeko eskatzea, harik eta proiektuaren aurrekontu optimizatu bat eskuratu eta zehatz aztertzen ez zen arte, eta proiektuaren azterlan estrategiko bat ere egiten ez zen arte.

2007-12-20: Circuito de Los Arcos sozietateko kontseiluak lehenbiziko obra ziurtagiria jaso zuen, 2007-11-05era bitartekoa, eta zenbait obra-zuzen-

daritza ere onetsi zituen. Obren finantzaketaren problema planteatzen da, eta finantzaketa gehiago lortu ezean obrak gelditzeko aukera ere bai.

2007ko abendua. Los Arcosko Abiadura Zirkuituko Plan Estrategikoa aurkeztu zen.

2008-01-11. Circuito de Los Arcos sozietateak erabakitzen du finantzaketa handitzea maileguen bidez eta kapital-zabalkuntzen bidez. Samaniegok bere ekarpena egiten du ziurtagiriak kapitalizatuz. Proiektuaren separata gisa ageri zen obra exekutatze kontratua onetsi zen. Kontratu hori prestaketa-obrei dagokie (aldez aurreko lana, lur mugimenduak, etab.); lan horiek Samaniegok egin zituen, eta 2007ko abuztuan hasi ziren, zuinketa-aktak dioenaren arabera. Kontratu urtarrilaren 18an formalizatu zen.

2008-01-18.: Batzar Nagusiak kapital-zabalkuntza bat onetsi zuen, bi milioi eurokoa.

2008-01-29. Zirkuituko obrak nola doazen badakiela adierazi zuen SPRINeko Kontseiluak; separatari eman zitzaion balioa bost milioi izan zen, gehi BEZA; ingeniari-entzaletza bat kontratatzea aztertu zen lurzorua konponbide teknikoak optimizatze aldera; aipatu zen 45 milioira iritsiko zela inbertsioa, guztira; eta zirkuituko plan estrategikoa amaitu zen.

2008-03-10. Circuito de Los Arcos sozietatearen batzarrak kapital-zabalkuntza bat onetsi zuen, 1,5 milioi eurokoa.

2008-07-02. Beste protokolo bat sinatu zen Samaniego eta SPRINen artean. Hona zehaztutako garrantzizkoenak:

Obrak:

Proiektuak berrikusteko konpromisoa hartu zuten, eta, behar izanez gero, horiek aldatu eta onestekoa. Edonola ere, proiektuok ezin izanen zuten gaintu 66,4 milioiko zenbatekoa, BEZA barne (ik. 1. eranskina); horietatik, 59,1 zirkuituari zegozkion eta 7,3 Konpentsazio Batzordearen obrei (sarbideak eta kanpoko urbanizazioa). Bi obrak Construcciones Samaniego S.L enpresari eman zitzaizkion.

Eraikitzaileak konpromisoa hartu zuen obrak aurrekontuan ageri zen prezioan egiten zituela, eta inola ere ez zen onartuko ehuneko bost baino gehiagoko aurrekontu-handitzea.

Obrak exekutatze kontratuak sinatzearekin batera, bazkideek proiektuaren obra zuzendaritza eta zuzendaritza integrala izendatu eta kontratatu zituzten.

Konpentsazio Batzordearen botoen ehuneko 90 Circuito de Los Arcos sozietateari esleitu zitzaizkion, eta Samaniegori, berriz, gainerako ehuneko 10a; hala ere, beste obra batzuek, hala nola sarbideek, zerbitzu orokorrek eta urbanizatzelanekek, beste ehuneko bat zuten.

2008ko urrira arteko finantzaketa-beharrak 25 milioi eurokoak izanen zirela kalkulatu zen. Zenbaterako horretara bazkide bien artean iritsiko ziren, kapitalean ekarpenak eginez eta maileguak emanaz, Circuito de Los Arcos sozietatearen kapitalean zuten partaidetzaren arabera.

Era berean, erabaki zen Samaniegok ez bazuen behar zen finantzaketa lortzen eta, beraz, ez bazituen adostutako ekarpenak egiten, besterik gabe aplikatuko zela, SPRINek eskatuta, kapitalearen % 50aren salmenta, akzioen balio nominala ordainduta.

Circuito de Los Arcos sozietateak ordain gabe zituenak ordaintzea ere erabaki zen; besteak beste, 1,23 milioi Samaniegori, aldez aurretik presaketarako eginiko zuzemenengatik –zirkuituaren diseinua, kudeaketa eta sustapena–, eta beste 539.000 euro ere bai, zenbait proiektu zirela eta.

Protokolo honetan, eutsi egin zitzaion 2007ko protokoloan Samaniegoren alde ageri zen eroste-ko aukerari.

2008-07-03. Bazkide nagusiarekin iritsitako akordio berri eman zitzaion SPRINeko Kontseiluari; akordio horiek beharrezkoak zirenez zegoen gatazka konpondu eta proiektuak normaltasunez aurrera egiteko, Kontseiluak aho batez onetsi zituen iritsitako akordio horiek.

2008-07-04. Circuito de Los Arcos sozietatearen batzarrak kapital-zabalkuntza bat onetsi zuen, 10 milioi eurokoa.

2008-07-04. Circuito de Los Arcosko administrazio-kontseiluak baimena eman zuen Konpentsazio Batzordearekin kontratu bat sinatu (udalez gaintutako plan sektoriala) eta Circuito de Los Arcos ardura zedin sarbideak, zerbitzuak eta urbanizatzelaneak egiteaz, bai eta, subrogazio bidez, obra horiek Samaniegori esleitzeko ere.

Hasierako onespina eman zitzaion obra proiektuei, proiektuon obren exekuzioa Samaniegok egiteko baimenari eta obra-zuzendaritzako kontratuak sinatzeko baimenari; berretsi egin zen, bestalde, hirigintza-aholkuak egiteko eskualdaketari buruzko 2007-07-16ko akordioa. Onetsitako proiektuak obraren zati hauei dagozkie:

- Zirkuitua.
- Jolaserako eta kirolerako gunea

- Barruko urbanizazioa.
- Egoitza soziala.
- Boxeak, I. fasea.
- Dorre zentrala.
- Medikuntza-zentroa.
- Kontrol-etxetxoak.
- Boxeak, II. fasea.
- Ibilgailuen biltegia.
- Harmailak.
- Sarbidea, NA-129 errepidetik.
- Zirkuitura sartzeko bideak.
- Kanpoko urbanizazioa

2008-07-04. Obra exekutatzeko kontratua sinatu zen, materialen hornidura barne zela, Circuito de Los Arcosen eta Samaniegoren artean. Ezarri zenez, desbideratzea gehienez ere ehuneko 5ekoa izan zen, obra 2009-10-31rako amaituko zen eta atzeratutako aste bakoitzeko obraren prezioaren ehuneko 1 ordaindu beharko zen zehapen gisa.

2008-07-21. Kapital-zabalkuntza egiteko epea amaituta, SPRINek bakarrik egin zuen diru-ekarpena; horrenbestez, uztailaren 2ko protokoloan ezarritakoa gertatu zen. SPRINek, horrela, kapitalaren % 50 eskuratu zuen, Samaniegoren jabetzakoa, eta beste kapital-zabalkuntza bat izan zen, 5,5 milioikoa; SPRINI egokitu zitzaizkion partaidetzek 5 milioi euro egiten zuten. Baimena eman zen SPRINekin mailegu bat sinatzeko, 14,25 milioi eurokoa.

Formalizatu egin zen, eskritura bidez, udalez gaindiko plan sektorialaren ondoriozko hirigintza-aprobetxamenduen eskualdaketa, Samaniegoren alde.

Bigarren eranskinen ikus daiteke zer bilakaera izan duen Circuito de Los Arcos sozietatearen kapitalak, eta nola banatu izan den Samaniegoren eta SPRINen artean.

2008-12-18. SPRINeko Kontseiluak informazioa jaso zuen zirkuitua izaten ari zen bilakaerari buruz, bai eta obra-proiektuetan aldaketak sartu beharrari buruz ere, horrela instalazioak hobetzeko baina inbertsioa handitu gabe.

2008-12-08. Onetsi egin ziren, behin betikoz, otsailean behin-behineko onespina izandako berrantolatze- eta urbanizatze-proiektuek. Gero, 2009ko ekainean, bi proiektu horien aldaketa bat onetsi zen behin-behinekoz.

2008-12-29. Nafarroako Gobernuak 33 milioi handitu zuen SPRINen kapitala; aurreikusi zen 19 milioirekin finantzatzeko zela abiadura-zirkuitua.

2009-02-17. SPRINeko Kontseiluak Circuito de Los Arcos sozietatearen 4,5 milioiko kapital-zabalkuntza bat baimendu zuen, kreditu-konpentsazioen bidez.

Halaber, bere partaidetzak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea erabaki zuen, eta, beraz, SPRINen kapitalaren murrizketa bat egin zen.

Kapitalaren handitzea martxoaren 10ean gauzatu zen, eta SPRINen kapitalaren murrizketa eta partaidetzak Nafarroako Gobernuari esleitzea, berriz, apirilean.

2009-04-06. Nafarroako Gobernuak honakoa erabaki zuen:

- Circuito de Los Arcosi abal bat ematea 35 milioiko mailegu baterako; mailegu hori 2009-05-29an formalizatu zen.

- Udalez gaindiko plan sektoriala aldatzeko espedientea tramitatzen hastea.

- Circuito de Los Arcos sozietatea sozietate publiko gisa onartzea.

2009-05-25. Partaidetzak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzean, SPRINek enpresako bazkide izateari utzi zion. Enpresak une hartan langilerik ez zuenez, zerbitzu-kontratu bat ezarri zen Circuito de Los Arcos eta SPRINen artean, eta hala kontratatu ziren proiektuaren exekuzioak behar zituen zerbitzu guztiak.

2009-05-25. SPRINeko Kontseiluak proiektuetan eginiko aldaketen berri izan zuen; proiektu horien aurrekontuak, hasieran onetsitakoekin alderatuta, ehuneko 7 murriztu ziren.

Horrela, kontratu bidezko exekuzioaren aurrekontua 46,2 milioitik 42,6 milioira pasa zen, eta zenbatekoa, guztira, BEZa barne, 66,4 milioitik 62,2ra.

2009-09-01. Circuito de Los Arcoseko Kontseiluak sozietatearen zuzendaria kontratatzea erabaki zuen.

2009-09-17. SPRINeko Kontseiluak honakoen berri izan zuen: proiektuaren bilakaera, obrak izaten ari ziren atzerapena, gutxi barru merkataritzako zuzendaria kontratatuko zutela, Itxako eskubaloi taldea babestuko zela eta zein izango zen automobilaren museoaren proiektuaren kostua –SODENArekin egitea dago aurreikusita–.



2009-09-09. Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektoriala aldatzeko espedientea onetsi zuen.

2010-01-07. SPRINeko Kontseiluak erabaki zuen Samaniegori jakinaraztea obrek 2010ko maiatzaren 28an amaitu behar zutela; erabaki hori urtarrilaren 11n jakinarazi zitzaion eraikitzaileari.

2010-01-18. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa eratu ondoren, Gobernuak korporazio horren esku utzi zituen enpresa publikoetan zituen akzio eta partaidetza guztiak, besteak beste SPRI-Nenak eta Circuito de Los Arcosenak.

Gainera, Nafarroako Gobernuaren 2010eko aurrekontuan, bada Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren kontusail bat, 350.000 eurokoa, transferentzia arrunt gisa, orain arte ez dena exekutatu.

Zirkuitua 2010eko ekainaren 19an inauguratu zen.

### III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen arabera, eta Parlamentuaren eskaera kontuan harturik, Nafarroako Gobernuak Los Arcosko abiadura-zirkuituan izan duen parte hartzea –bere kabuz edo SPRIN enpresa publikoaren bidez– aztertu dugu.

Txostenaren helburua da parlamentu-taldeek eginiko eskaerei erantzutea. Zehatzago, honako alderdiak aztertuko ditugu:

- a) Nafarroako Gobernuaren jarduna, bere kabuz izan duena edo SPRIN enpresa publikoaren bidezkoa.
- b) Operazioaren balio ekonomikoa; proiektuaren kostua eta bideragarritasuna aztertu ditugu bereziki.
- c) Jarduketaren legezko alderdiak; horien artean, obren adjudikazioa eta udalez gaindiko plan sektoriala aztertuko dira.
- d) Eraikitzaileak lortutako etekina.

### IV. TXOSTENAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

Finkaturiko helburuak kontuan harturik, gure lanak honakoak hartu ditu zeregin nagusi:

- Los Arcosen abiadura-zirkuitua ezarri izanaren historia biltzea.
- Nafarroako Gobernuak eta SPRIN sozietateak Los Arcosko zirkuitua dela-eta adostutakoak aztertzea.

- Circuito de Los Arcos, S. L. enpresaren agiriak aztertzea: eratze-eskitura, Kontseiluaren erabakiak, finantza-orriak, auditoriak, etab.

- Obra-kontratuen exekuzioak izaniko kostuak aztertzea.

- Zirkuituarentzat eginiko azterlanak eta bideragarritasun planak aztertzea.

- Obrak adjudikatzeko kontratua berrikustea, legezketasunaren ikuspuntutik.

- Zirkuituaren udalez gaindiko plan sektoriala aztertzea.

- Zerikusia duten beste entitate batzuen informazioa lortzea, txosteneko informazioa hobetzeko edo osatzeko erabili ahal izateko.

Bi alderdik dute eragina lan honetan. Batetik, obra amaitu gabe egin dugu txostena, eta, ondorioz, ez dakigu azkenean zein den kostua. Aipatu beharra daukagu, horri dagokionez, txostena zirkuitua inauguratu ondoren eman bada ere datuen bilketa-lana apirilean amaitu zela; beraz, obraren kostua aztertzeko erabili diren datuak izan dira urtarrilera bitarte eskuragarri zeudenak. Bigarrenik, ez dugu baimenik eraikitzailearen informazio pribatua ikusteko, eta, beraz, jakin ditzakegu zer zenbateko jaso zituen Circuito de Los Arcosetik eta sozietate horri zer ekarpen egin zizkion, baina ez ordea zein izan diren bere jardunaren ondoriozko emaitzak.

Behin-behineko txostena helarazi zitzaion Samaniego taldeari, alegazioak aurkezteko fasean, obraren sustatzailea eta eraikitzailea izan baitzen, eta Circuito de Los Arcos enpresako bazkidea.

Lana egin da sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Comptos Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauari jarraituz.

### V. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Comptos Ganberak Los Arcosko abiadura-zirkuituaren eraikuntzari buruz eginiko lanaren ondorioz, hauek dira Comptos Ganberaren ondorioak:

A. Gobernuaren jardunari dagokionez:

- Ez da honako hau Administrazioaren ohiko operazio bat. Nabarmendu beharra dago, hala ere, gero eta gehiago ari direla sortzen horrelako jarduketak, normalean operazioak konplexuak direne-

an, dela garrantzitsuak direlako edo oso handiak zenbatekoaren aldetik.

- SPRINek aztertua bazuen ere zirkuitu bat eraikitzeke aukera, Nafarroarentzat interesgarria izan zitekeelakoan, ezin izan dugu frogatu inongo agiririk dagoenik zehazten duenik zein helburu zehatzek bultzatu zuen Gobernuaren proiektu horretan inbertsiogile pribatu gisa parte hartzea, ezta zer irizpideren arabera aukeratu zen SPRIN eta ez SODENA jarduketara horretarako tresna gisa.

- Hasieran, eman zezakeen batera gertatu zirela Gobernuaren interesa eta inbertsiogile pribatu batena, eta, ondorioz, inbertsiogile pribatu horri kapitalaren gehiengoa utzi zitzaiola, berea izan baitzen ekimena; hori, hala ere, aldatzen joan zen proiektuak aurrera egin ahala. Aldaketa hori gertatu zen, batetik, jarduera hobeto ezagutzeagatik, eta, bestetik, inguru ekonomikoan aldaketa garrantzitsuak gertatu izanagatik. Proiektuak, azkenean, funtsezko aldaketa izan zuen, Administrazioa pasa baitzen kapitalaren ehuneko 95 izatera. Titulartasunaren aldaketarekin bat, zirkuitu-proiektuaren asmoak handitu egin ziren.

- Proiektuan parte hartzeko erabakia hartu eta gero, proiektuaren tamaina behin baino gehiagotan aldatu da, eta horrek esan nahi du ez zegoela alde zuretik erabat zehaztuta. Aldaketa horiek, eta bazkideek enpresaren partaidetzan izandako aldaketak, hein batean, enpresa pribatu bateko bazkideen arteko negoziazio baten barruan gertatzen dira; erraza da ondorioztatzea jardunbide hori Administrazioaren ohiko jokabideetatik oso urrun dagoela, eta ezin dela ohiko parametroekin neurtu.

#### B. Legezko alderdiei buruz:

- Zirkuituaren obrak adjudikatu zituena enpresa pribatu bat izan zen, non Administrazioak gutxieneko partaidetza baitzuen. Adjudikazio hori egin zen sinatutako protokoloetan ezarritako irizpideen arabera. Lehenbizikoa urtebete lehenagokoa zen, eta Administrazioak kapitalaren gehiengoa eskuratu baino 17 egun lehenago gauzatu zen. Aipatzen da obrak urtebete lehenago hasiak zirela.

Beraz, enpresa pribatu bateko bazkideen arteko erabakiak dira, non bazkideetako batek, proiektua hasi zuenak, kapitalaren gehiengoa baitu. Ezin zaio aplikatu, horrenbestez, kontratazio publikoari buruzko araudia.

- Udalez gairik plan sektorialaren tramitazioa araudiarekin bat egin da, eta udalari nahitaez egin beharreko aprobetxamendu-unitateen lagapena dirutuz.

Zirkuituko aprobetxamendu-unitateak Samaniegoren eskualdatu izana talde bereko enpresen arteko operazio baten ondorio da; eskualdaketa prezio finko baten truke egin zen eta erabakia hartu zen zenbat aprobetxamendu-unitate izanen ziren jakin gabe. Emaitza da prezioa nabarmen baxuagoa izan zela udalez gairik plan sektorialaren azterlanen ondorioz eta eginiko eskualdaketatik ateratzen dena baino.

- Zenbait operazio egin diren moduagatik, iruditzen zaigu 6.477 aprobetxamendu-unitateren jabetza ez dagoela ongi zehaztua.

- Konpentsazio Batzordeak eginiko urbanizazio gastuen banaketa ez dator bat aprobetxamenduen banaketarekin, eta Circuito de Los Arcosek gastuportzentaje handiagoa hartu zuen bere gain.

C. Ekonomia- eta finantza-alderdiei dagokienez:

- Proiektua lanak hasita zeudela joan zen zehazten. Azkenean, zirkuituak autoen eta motoren edozein lehiaketa har dezake, eta GP motoen eta 1 formulako entrenamenduak ere bai –lehiaketarik ez–.

Helburuak zehaztearekin eta nazioarteko federazioek ezarritako baldintzen ondorioz, berraztertu egin ziren eraikuntza-proiektuak; azkeneko proiektuaren kostua, 52 milioi euro, kontuan hartuta obrak, lursailak, ordainsariak, lizentziak, eta BEZa gabe. Finantzaketa egin zen 20 milioi kapital jarrita, eta gainerakoa Nafarroako Gobernuak abalaturako mailegu baten bidez.

Kontrola zorrotza izaten ari da, eta beharrezko doikuntzak egiten ari dira, zenbateko hori izan dadin gehieneko azken zenbatekoa.

- Datu errealean arabera hirugarren azterlan ekonomikoak dienez, zeina 2010eko otsailan egin baitzen, urteko ustiapen-kontuak, 2010-2013 epean, negatiboak ateratzen dira kasu guztietan.

Hala ere, horrelako ekimenek eragin positiboa izaten dute eskualdean, zirkuituan egiten diren jarduerak erakartzen dituzten bisitarien ondorioz. Eragin positibo hori, jakina, azpiegitura egokiak badaude gertatzen da.

#### D. Eraikitzailearen etekinari buruz:

- Ez dago zehazterik zer etekin ateratu duen eraikitzaileak bere kontabilitate pribatua ezagutu gabe. Horrenbestez, txostenean laburtuta jaso dira zer ekarpen egin dituen eta zer diru jaso duen.

Eraikuntzagatik lortutako emaitza gorabehera, iruditzen zaigu Samaniegoren abantailak lortu dituela Circuito de Los Arcosi aprobetxamendu-unitate-

ak erosi izanaren ondorioz eta Konpentsazio Batzordearen gastuetan parte hartuta.

Samaniegoren operazioen laburpena hau da:

Circuito de Los Arcosek zenbateko hauek eman dizkio:

– 781.000 euro, sozietatea sortu aurretik izaniko gastuen ordainetan.

– 1.639.522 euro Samaniegok eginiko gastuen ordainetan.

– 2010-01-31ra arte: 31 milioi, obra-ziurtagiriak direla eta.

Eta zenbatekoa hauek eman ditu:

– 1.000.000 euro, kapitalean % 5eko partaidetza eskuratzeko.

– 661.965 euro aprobetxamendu-unitateak erosteko Udalari, Circuito de Los Arcosi eta beste lurjabe batzuei.

Samaniegok, gainera, ez du galdu Circuito de Los Arcosen partaidetzak erosteko aukera ematen dion eskubidea.

*Aurreko guztiaren ondorioz, ondokoa gomentatzen dugu:*

– *Sektore publikoan agertzen ari diren jarduteko modu berriak ikusita, aztertzea ea komeni ote den jardunbide horietarako jarduketa-esparru bat edo printzipio orokorrak ezartzea, jarduteko modu berriok alde nabarmenak baitituzte Administrazioak tradizionalki erabilitakoekin alderatuta.*

*Administrazioak parte hartzen duen proiektu guztietan, orokorrean, neurri handiagoan edo txikiagoan, gizarte-interesen bat izaten denez, komeniko litzateke kudeaketaren ekimena sektore publikoak zuzentzea, hark izatea kapitalaren gehiengoa eta lehiaketa sistemaren bat erabiltzea bazkide pribatua hautatzeko.*

– *Nabarmenak izango diren edo zenbateko jakin bat gaindituko duten inbertsioak egitea erabaki aurretik, oroitidazki bat egitea, non jasoko baitira lortu nahi diren helburuak, horien lorpena aztertzeke adierazleak eta bideragarritasun plana, jakin ahal izateko, horrela, ekimenak zer emaitza izan dituen.*

– *Zehaztea ea komenigarria ote den enpresa pribatuen partaidetzak hartzea gutxiengoan, ez bada SODENA edo NAFINCO bezalako enpresa publikoen bidez, lehenbizikoa arriskuko kapitalak hartzen dituen enpresa baita eta bigarrena, berriz, krisian dauden enpresei laguntzen dien enpresa publikoa.*

– *Aztertzea eta zehaztea enpresa publikoetako administrazio-kontseiluek zer gaitasun izan behar duten erabakitzeke beste enpresa batzuetan inbertitzea edo parte hartzea, nahiz eta betiere Gobernuaren akordio edo baimen espresuki esan gabea izan.*

– *Aztertzea, eta, behar izanez gero, erregularizatzea 6.477 aprobetxamendu-unitateren egoera; horiek eskuratu ziren Udalari lagapena dirututa ordaintzean (2.765 unitate) eta desafektatzeko zegoen lurzatiaren bidez (3.712 unitate).*

## VI. ZIRKUITUAREN ERAIKUNTZARI BURUZKO IRUZKINAK ETA OHARRAK

### VI.1 GOBERNUAREN JARDUNARI BURUZ

Nafarroako Gobernuak abiadura-zirkuituaren eraikuntzan jardun du, batzuetan, bere kabuz, eta, beste batzuetan, SPRIN enpresa publikoaren bidez.

Gobernu gisa, udalez gaindiko plan sektoriala eta haren aldaketa onetsi ditu; sozietatearen zorpetzea ere baimendu du, eta abalak eman ere bai. Gobernuak, era beran, SPRIN enpresaren kapital-zabalkuntzak egin ditu; horiek beharrezkoak ziren SPRINek izan zezan Circuito de Los Arcos, S.L.-ren kapitalaren parte bat.

Horrela, Gobernuak, nagusiki, SPRINen bidez jardun du; enpresa publiko horretako administrazio-kontseiluko kide guztiak Nafarroako Gobernuko kide dira. SPRINen estatutuen arabera, sozietatearen xedeak hauek dira:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari beharrezkoa duen lankidetzeta eta laguntza ematea azpiegitura produktiboak diseinatzeko, bultzatzeko, exekutatzeko, koordinatzeko eta/edo jarraitzeko, azpiegitura horiek Nafarroako Foru Komunitateari dakarkiotenean lehiakortasuna handitzea, balioa sorraraztea edo enplegua sortzea.

2. Arau-esparru egoki bat proposatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari bere jarduketa-ildoak gauzatzeko, bai eta egoki irizitako neurriak ere estrategikoak diren azpiegitura produktiboen arloan.

3. Azterlanak proposatzea, Nafarroako ekonomia oinarri hartuta, bereziki azpiegitura produktiboen arloan, horrela inbertsio-erabaki publiko nahiz pribatuei buruzko iritzia emateko.

4. Azpiegiturak sustatzea, garraioaren arlokoak, teknologikoak, kulturalak edo industrialak, goraka ari diren sektoreetan.

5. Inbertsioak sustatzea Nafarroan, eta sortze-koak diren edo sortuak dauden sozietateetako kapitaletan parte hartzea.

6. Nafarroako Gobernuak eginiko edo lagundu-tako jarduera produktiboak ezagutzera ematea.

Xede horiek, zeinak bat datozen Administrazioaren sustapen-jarduera tipikoarekin, SODENAK dituen xedeen antzekoak dira (ik. 3. eranskina), nahiz eta kasu horretan estatutuetan ageri den jasota nola egin behar den esku-hartzea. Sodenak, horrela, "parte hartu ahal izanen du sustatzen dituen sozietateen kapitalean, edota dagoeneko existitzen diren sozietateen kapitalaren zabalkuntzan, bai eta bat egiten edo berregituratzen diren sozietateen kapitalean ere; kapitalaren ehuneko 5 hartu ahal izanen du, gutxienez, eta ehuneko 45, gehienez, 10 urteko gehieneko epean betiere. Partaidetza ez da inoiz Sodenaren baliabide berekien ehuneko 15 baino handiagoa izanen. Aurreko lerrokadetan aipatutako muga edo baldintza guzti horiek alda daitezke, salbuespenezko kasuetan, Nafarroako Gobernuak espresuki hala baimentzen badu.

Kasu honetan, operazioa izan daiteke bai goraka ari diren sektoreetako azpiegiturak sustatzeko, bai Nafarroan inbertsioak sustatzeko (4. eta 5. xedeak). Lehenbiziko kasuan, zirkuitua ikusi beharko litzateke motorraren arloko enpresen erakargune baten aurreneko pieza gisa, enpresa horietako batzuentzat erakargarria gerta bailiteke zirkuitutik hurbil kokatzea. Bigarren kasuan, Nafarroan inbertsio bat sustatzeko lankidetzaz ari-tuko ginateke.

Hala ere, Nafarroako Gobernuaren inongo agiri-rik ez dugu ikusi helburu horiek zehazten duenik; horrela, SPRINen kapital-zabalkuntzetatik ondorioztatzen da zirkuitua ezartzeko proiektuarekin jarraitzeko asmoa.

Horregatik, zaila da baloratzea horrelako jarduera bat hobeki lotzen den SODENAREN helburuekin edo SPRINekin dituenekin. Beraz, komenigarria litzateke jakitea zer irizpideren arabera bideratzen dituen Gobernuak bere ekimenak enpresa baten edo bestearen bidez. Aipatu behar da, bestalde, sozietateez ari garenez, administrazio-kontseiluak direla erabakiak hartzen dituztenak, eta, beraz, gutxienez ikuspegi formaletik, kontseiluok autonomia dutela zer inbertsio egin behar dituzten erabakitzeko.

Egokia iruditzen zaigu azpimarratzea azken urteotan administrazioak gainditzen ari direla zenbaitetan jardunbide publikoaren modu tradizionalak, dela jarduketaren helburuagatik edo konfigurazioagatik. Horrelako operazioak zaila da araudi

tradizionalaren barruan sarraraztea, aurretik ez baldin bada jarduteko esparru berezi bat zehaztu eta horrelakoak aztertzeko nahikoa esperientziarik ez badago.

Horrenbestez, zaila da ezartzea zer irizpideren arabera baloratu behar den Nafarroako Gobernuak sozietate pribatu batean parte hartzea, non kapitalaren gutxiengoa duen aurrena eta, gero, gehiengoa izatera pasatzen den.

Aztergai dugun kasuan, ikusten da proiektuan parte hartzea erabaki eta gero bi bideragarritasun plan egin direla, proiektuaren tamaina aldatu egin dela eta enpresaren titulartasuna ere aldatu egin dela. Aldaketa horien egokitasuna gorabehera, begi bistakoa da proiektua, hasierako erabakia hartzean, ez zegoela erabat zehaztuta. Kontuan hartzen badugu, gainera, aldaketa horiek enpresa pribatu bateko bazkideen arteko negoziazio baten barruan gertatzen direla, erraza da ondorioztatzea jardunbide hori Administrazioaren ohiko jokabideetatik oso urrun dagoela, eta ezin dela ohiko parametroekin neurtu.

Logikoa dirudi, bestalde, jardun ekonomiko pribatua etengabe ari baldin bada aldatzen, jardun publikoak ere eboluzionatu eta ingurune berrietara egokitu behar duela.

Horri dagokionez, komeniko litzateke erreferentzia-esparru bat ezartzea zehaztuko duena zein behar duen izan Administrazioaren jarduera, zer gaitasun behar duen gobernu batek neurriak hartu eta ingurune ekonomiko berrietara egokitzeko eta zer eginkizun Parlamentuak hori kontrolatzeko eta zenbait erabakiren gaineko baimena emateko.

## VI.2. OPERAZIOAREN BALIO EKONOMIKOARI BURUZ

### VI.2.1. Operazioaren kostua.

– Zirkuituaren eraikuntza-prozesua zein alditan zegoen, aukerak eta zenbatekoak desberdinak ziren, eta ez zituzten beti kontzeptu berak biltzen.

Hala, 2007ko otsailean, gutxieneko inbertsioa 15 milioikoa izanen zela aipatzen zen; Samaniegok sustatutako oinarrizko proiektuaren arabera (2007ko martxoa), kostua 16,5 milioikoa izanen zen, BEZa gabe; hilabete horretan bertan, SPRI-Neko administrazio-kontseiluari 20 milioiko proiektu baten berri eman zitzaion; 2007ko maiatzeko protokoloan, aldeek aipatzen dute inbertsioa 21 milioikoa izan daitekeela; 2008ko urtarrilean, SPRI-Neko administrazio-kontseilu batean, inbertsioak 45 milioi eginen dituela aipatzen da; 2008ko uztaileko protokoloan, adierazten da zenbatekoa, guztira, BEZa barne, 66,4 milioi izanen dela, zein

netatik 7,3 milioi Konpentsazio Batzordeari baita-  
gozkie; azkenik, 2009ko maiatzean, eta proiektuak  
berraztertu eta aldatu ondoren, aurrekontua jaitsi  
eta 62,2 milioikoa izatera pasatzen da, BEZa  
barne.

Zenbateko horiek, jakina, ez dagozkie proiektu  
bakarrari, baizik eta zein bilakaera izan den isla-

tzen dute, zirkuituak behin betiko homologazioak  
lortu arte.

– Ondoko taulan ageri dira xehakaturata azken bi  
aurrekontuok, non sartuta baitaude obraren kos-  
tua, beste kostu batzuk eta BEZa, bai eta exeku-  
zioa 2010-01-31n.

Proiektuen deskribapena	2008ko uztailleko erabakian jasotako aurrekontua	Aurrekontua, zuzendua	2010-01-31ko ziurtagiria
Los Arcosko abiadura-zirkuitua	14.337.048	14.337.048	11.528.519
Jolaserako eta kirolerako gunea	1.404.653	1.206.794	937.259
Los Arcosko abiadura-zirkuitua Barruko urbanizazioa.	8.040.211	7.626.524	4.108.792
<i>Sarbidea, NA-129 errepidetik, eta glorieta (*)</i>	<i>467.987</i>		<i>0</i>
<i>Abiadura zirkuiturako sarbideak (*)</i>	<i>2.543991</i>	<i>2.012.237</i>	<i>1.657.849</i>
<i>Kanpoko urbanizazioa (*)</i>	<i>1.913.323</i>	<i>744.555</i>	<i>415.594</i>
Egoitza soziala	3.667.873	3.496.240	2.873.939
Boxeak (I. fasea)	2.935.456	3.231.256	2.248.298
Boxeak (II. fasea)	1.885.640	1.974.444	1.542.225
Kontrol-dorrea	832.395	889.230	688.070
Medikuntza-zentroa	161.219		0
Kontrol-etxetxea	36.007	36.561	0
Ibilgailuen biltegia	382.874	360.619	225.145
Helmugako zuzeneko harmailak	1.192.828	788.041	572.448
Exekuzio materiala, guztira	39.801.505	36.703.549	26.798.138
Mozk. ind. eta gastu orok., % 16	6.368.241	5.872.568	4.287.702
Exekuzioaren kontratua, guztira	46.169.746	42.576.117	31.085.840
BEZa	7.387.159	6.812.179	
Obra zibila, guztira	53.556.905	49.388.295	
Lursailak	1.500.000	1.500.000	1.426.081
Aldez aurretik prestaketarako eginiko zuzemenak (BEZa barne).	1.435.526	1.435.526	1.435.526
Proiektuak + obra zuzendaritza + urbanizatzeko lizentziak (BEZa barne)	5.460.225	5.460.225	3.959.346
Ekipamendua + hasierako zirkulatzailea (BEZa barne)	4.461.000	4.461.000	
Circuito Los Arcos, S.L., guztira	66.413.656	62.245.047	

(\*) Konpentsazio Batzordearen obrei dagokie.

Taula horretan, ikus daitekeenez, proiektuaren finantzaketa-beharrak ageri dira. Kostuaz hitz egiteko, BEZa eta hasierako zirkulatzaila deskontatu behar ditugu.

Hori eginda, zenbatekoak hauek lirarteke: 52.020.717 eta 52.020.717 euro.

– Proiektua konfiguratzeko zihon ahala egin ziren aldaketak aurrekontuetan; azkenean erabaki zen zirkuituak automobilismoari dagokionez 1T<sup>(1)</sup> kategoria izanen zuela eta motoziklismoarako, berriz, B<sup>(2)</sup> mailakoa izanen zela. Horrek esan nahi du 1 formulako eta GP motoen entrenamenduak egin daitezkeela. Horren gainetik kategoria goren horietako lehiaketak bakarrik egonen lirarteke; zirkuituak baditu horretarako baldintza teknikoak (tamaina, segurtasuna, boxeak, etab.), baina ez ordea leku nahikorik (tribunak, sarbideak, etab.) Zirkuitu-kategoria horren alde egin da, ulertu baita gainerako balditzen kostua gehiegizkoa dela gero emanen zaion erabilerarako.

– Aurrekontuaren ia kontusail guztietan egin dira zuzenketak, handiagoak edo txikiagoak; aldaketak nagusiak, hala ere, egin dira Konpentsazio Batzordeari dagozkion kontusailetan, bereziki kanpoko urbanizazioan eta sarbidean –ez da egin–.

Medikuntza-zentroari dagokion kontusaila boxen kontusailan sartu da.

– Aurrekontua osotara kalkulatzeko, kontratu bidezko exekuzioaren balioari honako balioa gehitu behar zaio: lursailak; proiektuengatik eta obra-zuzendaritzagatik ordainsariak; udal lizentziak; ekipamendua; eta, azkenik, alde aurretik prestaketarako Samaniegok eginiko zuzemenak, hau da, fakturaren arabera, 1.237.522 euro gehi BEZa.

– Kontratu bidezko exekuzioak 31 milioi egiten zuen 2010-01-31n, eta, aurreikusitakoaren arabera, zuzendutako aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoak ez dira gaindituko; izan ere, helburu garbia da kontratu bidezko exekuzioak ez dezala 43 milioi euroko zenbatekoa gainditu.

– Eginiko azterketatik ondorioztatzen da SPRI-Neko teknikariek obraren martxa eta kostua eten gabe behatzen dutela, eta behin eta berriz hartzen direla beharrezkoak gertatzen diren neurri zuzentzaileak aipatutako helburua lortzeko.

– 2008ko uztailako kontratuan ezarri zenez, obrak 2009-10-31rako amaituta behar zuen. Epe

hori, ordea, espresuki adierazi gabe ere, aldatu egin zen berrikusketen eta doitzeen ondorioz, halako moduz non 2010eko urtarrilean, aldaketak eta gero, obra-zuzendaritzak kalkulatu zuen obra 2010-05-28rako amaituta egon zitekeela; eraikitzaileari epearen berri eman zitzaion eta mugaez hori hartu zen kontratuan jasotako zehapenak aplikatzen hasteko data gisa.

– Circuito de Los Arcos sozietateak egin du, kanpoko profesionalen bidez, urteko kontuen bere auditoretza; 2007, 2008 eta 2009ko ekitaldietako auditoretzen iritzia aldekoa da.

– Circuito de Los Arcos sozietatearen datu ekonomiko horiekin batera, komeni da aipatzea Udalak diru-sarrerak izan dituela; batetik, EIOZen bidez (eraikuntza, instalazioen eta obren gaineko zerga), eta, bestetik, hirigintza-aprobetxamendua- ren ehuneko 10eko nahitaezko lagapena dela eta.

Orain arte honakoak izan dira diru-sarrerak:

- 921.000 euro, EIOZ dela eta: proiektuen zenbatekoaren (23 milioi) ehuneko lau.
- 235.000 euro, nahitaezko lagapena dirutu izanaren ondorio.

#### **VI.2.2. Proiektuaren bideragarritasunari buruz**

– Samaniegoren lehenbiziko proiektuak bideragarritasun-azterlan bat zeukan. Gero, abenduaren 2007an plan estrategiko bat egin zen, zeina 2010eko otsailean eguneratu egin baitzen.

Gorago aipatu dugunez, lehenbiziko azterketen ondorioa zen 15 milioi baino gehiagoko inbertsioak eginez gero, ezin izanen zela inbertsioa berreskuratu ustia ketaren zuzeneko etekinekin; "ingurune" horretarako gertatzen da errentagarria.

– Azken eguneraketan ageri diren datuak ikusita, ondorioa da zirkuituak, lehiaketak erakartzeko asmoa baztertu gabe, beste sektore eta jardun batzuk ere hartzen dituela helburu: enpresa mundua, motorraren industria –probaketetarako eta produktuak ezagutzera emateko– eta beste industria batzuk ere bai –pizgarriak, jardunaldiak, etab.–, eta jendea, orokorrean, aisialdirako, hau da, pistak alokatu ahal izateko, kart-etan ibiltzeko edo gidatzeko eskoletarako.

2013ra bitarte eginiko proiektuaren arabera, jarduerak emaitza positiboak izanen lituzke soilik 2012tik aurrera, eta, betiere, lehiaketa bereziek

(1) FIAk, hau da, Automobilaren Nazioarteko Federazioak, zirkuituari eskatzen zaizkion baldintzen arabera, zazpi kategoria ditu ezarrita; hauek dira, handitik txikira, kategoria horiek: 1, 1T, 2, 3, 4, 5 eta 6.

(2) Motoziklismoko Nazioarteko Federazioak (FIM) bost mailatan ditu sailkatuta zirkuituak: A, B, C, D eta E.

finantzaketa lortzen badute lasterketen eskubideetarako. Eskubideok dira (fee esaten zaie) lehiaketan sustatzaileek eskatzen dituztenak probak egiten "uzteko" eta aldatu egiten dira lehiaketa zer motatakoa eta zer kategoriatakoa den. Horrela, GP motoen lasterketa bat egiteko eskubideek 6 milioi balio dute, eta 1 formulako lasterketa bat egitekoek 22 milioi baino gehiago.

Finantza gastuak eta amortizazioak sartuta, emaitzak negatiboak dira 2013ra bitarte; horrek esan nahi du kapital-zabalkuntzak egin beharko direla.

Merkataritza Erregistroan, penintsulako beste zirkuitu batzuetako datuak lortu ditugu; datuak, xehakaturik, 4. eranskinean ageri dira. Jerezko eta Chesteko (Valentzia) zirkuituek, 2003 eta 2007 bitartean, ekitaldi guztietan negatiboak izan zituzten ustiapen-emaitzak eta ekitaldiko emaitzak; Monmelók, 2005etik aurrera lortu zituen emaitza positiboak eta Monteblandok 2007tik aurrera. Ildo beretik, funts berekiak positiboak dira Montmelon eta Monteblandon; negatiboak Chesten; Jerezen, 2006ra arte negatiboak ziren, baina urte horretan kapital-ekarpen batekin konpentsatu eta positiboak izatera pasa ziren.

– Aurreikuspenek diotenez, 2012tik aurrera 150.000 lagunek kalkulatu da har dezaketela parte zirkuituko ekintzetan, eta proiektuaren "gizarte-errentagarritasuna" jende kopuru horrek eskualdean izanen duen eragin ekonomikoan dago.

Horri dagokionez, aipatzekoa da inguruetatiko ostatu-azpiegiturak urriak direla; jende asko hartzeko gai diren leku hurbilenekoenak Logroño eta Iruña dira. "Gizarte-emaitza" hori, beraz, bi erkidegoren artean bana liteke.

### VI.3. LEGEZKO ALDERDIEI BURUZ

#### VI.3.1. Obren adjudikazioari dagokionez

2007ko maiatzean, Samaniegok eta SPRINek sinatutako protokoloan, adostu zen Samaniegok hautatuko zuela enpresa eraikitzailea; halaber, eratzekoa zen enpresaren kapitalaren % 55 izanen zuela ere ezarri zen, eta eraikuntza-lanetarako Samaniegok bere burua hauta zezakeela ere bai.

Circuito de Los Arcos sozietatea 2007ko ekainean eratu zen.

Obraren zuinketa- eta hasiera-aktan ageri denez –akta 2007ko abuztuaren 2koa da–, obra hori egitekoa zen 78/2007 zenbakidun obra-lizentziari jarraikiz, zeina Los Arcosko Udalak maiatzaren 25ean eman baitzuen.

Gero, 2008ko uztailean sinatu zen protokoloan, obren gehieneko zenbatekoa kalkulatu zen, hau da, bai zirkuitua egiteko obrek bai Konpentsazio Batzordearen obrek eraginen zuten kostuaren gehieneko zenbatekoa; gainera, obra bi horiek Samaniegori adjudikatuko zitzaizkiola erabaki zen, eta hark zirkuitua "giltza eskura" formularekin erakiko zuela.

2008-07-04an, obrak exekutatzeko kontratua sinatu zen Circuito de Los Arcosen eta Samaniegoren artean.

2008-07-21ean, Samaniegok sozietatearen finantzaketa-planak bete ezin eta SPRINek hartu zuen sozietatearen gehiengoa.

Bi gai dira aztertu beharrekoak:

- a) Zirkuituko obren adjudikazioa.
- b) Konpentsazio Batzordearen obren adjudikazioa.

#### VI.3.1.1. Zirkuituko obrak.

Lehenbiziko alderdiari buruz, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeak ezartzen du, 2. artikuluan, botere adjudikatzailerik publikotzat hartua izateko, eta beraz Kontratuari buruzko Foru Legearen menpe egoteko, bi baldintza hauek behar direla:

a) "Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak".

b) "Nafarroako administrazio publikoek, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueraren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez".

Lehenbiziko baldintza betetzen ote den aztertzeko –jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea– enpresaren helburuak eta xedea ebaluatu behar dira: jolaserako eta kirolerako instalazio bat eraikitzea eta ustiatzea.

Jarduerak ekarriko duen sustapen kulturalak eta turistikoak badu nolabaiteko interes soziala, baina ez da zerbitzu publiko bat, eta ezin da nahitaez Administrazioaren berezko eskumen eta ahalmentzat jo. Botere publikoek susta dezaketen jarduera bat da, baina, halaber, merkatu lehiakorren barruan sor daiteke.

Bestalde, protokoloa eta sozietatearen estatuak aztertuta, jarduerak irabazi asmoa duela

ageri da; enpresa-jarduera gisa aurkezten da, eta finantzabideen artean ez du inondik inora aurreikusten ekarpen publikorik eginen denik ekarpen horiek ez itzultzekotan. Jarduera gauzatzeko behar den finantzaketari aurre egiteko moduagatik –bazkideen ekarpenak, bazkideen edo bankuen maileguak, denak ere ordainpekoak– baieztatu daitezke sozietateak arriskuak onartzen zituela, merkataritzako enpresa huts gisa. Era berean, sintomatikoa da bazkide pribatuak, nahiz eta gaur egun ez duen sozietatearen kapitalaren ehuneko 5 baizik, kapital guztia erosteko aukera izatea hitzartua, zeina 2012tik aurrera erabili ahaliko baitu. Hori gertatuko balitz, jakina, partaidetza publikoa atera eginen litzateke sozietatetik, eta, hala ere, sozietateak ez luke aldatuko bere xedea, xede hori bateragarria baita argi eta garbi merkatu-jarduera batekin. Badi-tu, beraz, merkaturako edo merkataritzako enpresa-jarduera batek berezkoak dituen ezaugarriak.

Legeko 2. artikuluan aipatutako baldintzak batera gertatu behar dute, halako moduz non, bietako bat falta bada, ulertu behar baitugu ez dagoela sozietatea botere adjudikatzaile jotzerik, eta, beraz, ez zaiola aplikatu behar Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea.

Edonola ere, ez dira honako hauek ahaztu behar:

– Adjudikazioa egin zenean, enpresa pribatu batek egin zuen, non Administrazioa bazkideetako bat zen.

– Adjudikazioa Circuito de Los Arcos enpresak egin zuen, bere bazkide nagusiaren alde; kontuan izan behar da, hala ere, kontratua sinatu eta egun gutxi batzuk geroago, bazkide nagusi horrek bazkide nagusi izateari utzi ziola. Horri dagokionez, aipatu beharra daukagu Samaniegok obrak urtebete lehenago hasiak zituela, horretarako oinarri hartuta 2007ko maiatzeko protokoloan enpresa eraikitzailearen hautapenari buruz adostutakoa.

– Operazio guztian zehar, "onura soziala" bilatzen da.

#### VI.3.1.2. Konpentsazio Batzordearen obrak.

Konpentsazio Batzordeak adjudikatu zituen obrei dagokionez, adierazi behar dugu eztabaida doktrinal handiak izan direla argitzeko ea konpentsazio batzordeek, urbanizatze-obrak kontratatzean, kontratazio publikorako araudiari jarraitu behar ote dioten.

Madrilera Auzitegi Nagusiaren iritziz –2006ko ekainaren 6ko epaia–, konpentsazio batzordeei ez zaie araudi publikoa aplikatu behar urbanizatze-obrak kontratatzen dituztenean.

Hala ere, autore gehienek ustez, kontuan hartuz foru araudia eta Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko 30/2007 Legea, bada argudiorik aldeztuko konpentsazio batzordeak araudi publikoaren aplikazio-esparru subjektiboaren barruan daudela. Esaten da entitate horiek izaera administratiboa dutela eta, halaber, beren helburuak betetzeko nortasun juridiko osoa, baina, Administrazioak eskuordetuta, eginkizun publikoak betetzen dituztela, bereziki obra publikoak kontratatzen dituztenean.

Beste autore batzuek esaten dute konpentsazio batzordeak zeharka eta materialki daudela Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen pean; hori esateko erabiltzen duten argudioa da ezen, legearen arabera, foru lege horren pean gelditzen direla "agente urbanizatzaileen obra kontratuak, 2.1 artikuluko e) letran aipatutakoek egiten dituztenak izan ezik." Hori horrela, urbanizatze-obrekin zerikusi zuzena duten kontratuak bakarrik geldituko lirateke araudi publikoaren pean, eta, beraz, gainerako kontratuei araudi pribatua aplikatuko lekieke, konpentsazio batzordea, horietan, ez baliatzeke botere adjudikatzailea.

Kontratazio publikoari buruzko araudia oinarri hartuta eginiko hausnarketa horiei gehitu behar zaio, bestalde, konpentsazio batzordeei nahitaez aplikatu behar zaiela Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeko 6. a) artikulua (2007ko uztailaren 1etik aurrera dago indarrean).

Arauk onartzen du exekuzio-sistema pribatuak egotea, esate baterako konpentsazio sistema. Kasu horretan, ekintza urbanizatzailearen eskumena Administrazioak jarraitzen du izaten, baina onartzen da ekintza hori ez dezala zuzenean Administrazioak exekutatu, baizik eta ekimen pribatuak.

Jarduera urbanizatzaileari ekinen dion partikularra hautatzeko eta gaitzeko prozedurak, betiere, publikotasunaren eta lehiaren printzipioei jarraitu behar die. Printzipio horiek dira lehiarako eskubiak berezkoak dituenak oro har, eta, zehazki, kontratazio publikoari buruzko araudiak berariazkoak dituenak. Iritzi orokorraren arabera, kasu honetan, aplikatu beharreko legedia aipatzen denean, ulertu behar da kontratazio publikoari buruzko arauari buruz ari dela.

Artikulu horrek onartzen du hirigintzaren arloko legediak ezar ditzakeela berezitasunak edo salbuespenak jabeen ekimenaren alde. Formula ireki horrekin adierazten da lizitazioan sar daitezkeela jabeen aldeko arauak edo lizitazio-salbuespenak, baina, edonola ere, hirigintzaren arloko legedi



autonomikoak espresuki onartuta egon behar dutela.

Lurzoruari buruzko Legearen eraginez, aldatu egin dira hirigintzaren arloko lege autonomiko gehien-gehienak, halako moduz, non, orain, orokorrean, urbanizatzeko obra-kontratuetan eskatzen baita, hala exekuzio-sistema publikoetan nola pribatuetan, lizitazioa kontratazio publikoaren arabera egin dadila.

Hirigintzari buruzko Nafarroako araudiak, berriki aldaketa batzuk egin bazaizkio ere, ez ditu espresuki jaso Lurzoruari buruzko Legearen zehaztapen horiek.

Lurzoruari buruzko Legeko 6. artikulua, ordea, oinarritzko araudia da, hala ezartzen baitu lege horretako azken xedapenetako lehenbizikoak, eta, ondorioz, zuzenean eta nahitaez aplikatu beharreako da, alde batera utzita baldintzak jasota ala zehaztuta dauden hirigintzari buruzko kasuko araudi autonomikoan.

Gai eztabaidatua dugu hau; gure ustez, hala ere, zuzenagoa izanzen zen kontratazio araudiari jarraitzea Konpentsazio Batzordearen obrak adjudikatzean. Edonola ere, guztira adjudikatutakoaren ehuneko zortzi egiten duenez, eta bi obren arteko harremana kontuan hartuta, eraginkortasuna eta efizientzia ere aintzat hartu beharrekoak dira.

Aztertu beharreko beste alderdi bat da Konpentsazio Batzordearen obrak eragindako gastuen banaketa. Orain arte, gastuen banaketa ez da egin titular bakoitzari dagokion aprobetxamendu-porzentajearen arabera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 139. artikulua ezartzen duen bezala; Circuito de Los Arcos sozietateak egokitu zaizkion aprobetxamenduak baino gehiagoko gastuak hartu ditu bere gain.

Enpresaren iritzia ondoriozta daiteke epigrafearen amaieran ohar gisa sartu dugun iruzkinetik.

### **VI.3.2. Udalez gaindiko plan sektorialari buruz**

2006ko abenduan, Samaniegok kontsulta egin zion Lurraldearen Antolamenduko Departamentuari jakiteko zer baldintza bete behar ziren Los Arcosen abiadura-zirkuitu bat jartzeko. Departamentuaren erantzunaren arabera, zirkuitua udalez gaindiko plan sektorial gisa zegoen tramitatu beharra. Samaniegok abiadura-zirkuituaren proiektua aurkeztu, maiatzaren 2007an, eta Gobernuak udalez gaindiko plan sektorial deklaratu zuen.

Legezko tramiteen ondoren, behin betikoz onetsi zen Gobernuaren 2007ko urriko erabaki batez.

Gero, Circuito de Los Arcos sozietatea subrogatu egin zen hein batean, eta, beraz, bi sozietateak ageri dira proiektuaren sustatzaile gisa.

Los Arcosko Plan Orokorra zitzaion aplikatze-koa, zeinak 2007ko martxoan izan baitzuen behin betiko onespena; Lukin herriari zegozkion bi lurzati ere bazituen udalez gaindiko plan sektorialak.

Hasierako azalerak, guztira, 1.662.565 metro koadro zituen; horietatik, 1.062.826 metro koadro lur urbanizagarria ziren, eta gainerakoa, berriz, lur ez-urbanizagarri babestua.

Eredu-aprobetxamendua 0,1188 zenez, 126.264 aprobetxamendu-unitate lortu ziren, hau da, eraiki zitezkeen metro koadroak.

2009ko apirilean udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa bat hasi zen tramitatzen; urte horretako irailean onetsi zen Aldaketa horretan, lau mol-daketa egin ziren:

– Sarbide nagusia aldatu eta 13.794 metro koadro erantsi zitzaizkion.

– Udalez gaindiko plan sektoriala garatzeko faseak aldatu egin ziren; hasieran bi fase ziren, eta hiru izatera pasa ziren.

– Erabilera tertziario balioaniztunerako eta kirol-dotazioetarako utzitako azalera librea handitu egin zen, aprobetxamendua handitu gabe.

– Aldatu egin ziren hirigunearekin eta kanpoko bide-azpiegiturekin aurreikusita zeuden loturak.

Jarduketa-sistema zen konpentsazioa edo lurzatiaren borondatezko berrantolatzea

Dotazio hauek aurreikusi ziren:

– Berdeguneak: 118.916 metro koadro.

– Kirolguneko aparkalekuak: 130.950 metro koadro.

– Gune balioaniztuneko aparkalekuak: 25.045 metro koadro.

– Ekipamendu balioaniztuna: 42.674 metro koadro.

Aprobetxamenduaren ehuneko hamarreko lagapena ezarri zen, eta dirutzea aurreikusi zen.

Ondoko taulan ikus daiteke nola banatu ziren aprobetxamendu-unitateak udalez gaindiko plan sektorialean lursailen ekarpenak egin zituzten jabeen artean.

	Lursailak	Aprobetxamendu-unitateak	Udalari laga beharrekoa (% 10)	Aprobetxamendu-unitateak lagapenaren ondoren
Circuito de Los Arcos	787.154	93.513	9.351	84.162
Samaniego	116.960	13.894	1.389	12.505
Beste jabe batzuk	160.678	19.088	1.909	17.179
			12.649	

Aprobetxamendu-unitate horiek hiru lurzutatitan zeuden banatuta: bat zirkuituari zegokiona (36.235 aprobetxamendu-unitate), eta beste biak, berriz, bi lurzuti balioaniztun (bakoitzak 45.000 aprobetxamendu-unitate).

Samaniegok erosi egin zituen beste jabe batzuei zegozkien 17.179 aprobetxamendu-unitateak, Udalari laga beharreko 12.649 unitateak ere erosi zituen, sinatutako protokoloari jarraikiz, eta Circuito de Los Arcosi, azkenik, 47.927 unitate erosi zizkion. Beraz, bi jabe bakarrik gelditu ziren: Circuito de Los Arcos, zeinak kirol-guneari zegozkionak erabili baitzituen, eta Samaniego, zeina bi lurzuti balioaniztunetako 90.000 aprobetxamendu-unitateekin gelditu baitzen.

Lurzuti balioaniztunen bideragarritasuna, jakina, zirkuituaren funtzionamenduaren baitan egonen da. Arrakasta zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago egonen dira lurzuti horietan baliabide ekonomikoak sorraraziko dituzten jarduerak ezartzeko.

Samaniegok eta Circuito de Los Arcosek, Udalari erosketa egiterakoan, lehenbiziko ordainketa egin zuten eraikigarritasunaren banaketan azkenean bakoitzak zuen partaidetzaren arabera, hau da, Samaniegok ehuneko 71 ordaindu zuen eta Circuito de Los Arcosek ehuneko 29; bigarren ordainketa Samaniegok egin zuen. Gure ondorioa da Circuito de Los Arcosek 2.766 aprobetxamendu-unitate eskuratu zituela.

Circuito de Los Arcosek, gainera, Los Arcosko Udalaren jabetzakoa zen 29.500 metro koadroko finka bat erosi zuen; artean desafektatu gabe zegoen. Geroztik, finka hori lurzutiak berrantolatzeko proiektuan sartu zen, eta Samaniegok berriro erosi zion Udalari. Akatsa ikustean, Udalak prozesu bat jarri zuen abian operazio hori zuzendu eta lurzutiak berrantolatzeko.

Arrazoi horiengatik, ez dago argi Circuito de Los Arcos eta Samaniegoren artean eskualdatu ziren aprobetxamendu-unitateak izan ote ziren eskrituretako 47.927 unitateak edo, aurrekoek gain, baita dirututako 2.766 unitateak eta desafektutako lurzutiak 3.712 unitateak ere.

Aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa-prezioak –V. eranskinean ikus daitezke– unitateko 4,41 eta 18,61 euro artean daude.

Circuito de Los Arcosek Samaniegori aprobetxamendu-unitateak 240.000 euroko salneurri finko baten truke eskualdatzea, hala jasotzen baitzuen 2007ko uztaileko konpromisoak, egin daitekeen zerbait da enpresen arteko operazio pribatu gisa; enpresa biak, adostu zenean, talde berekoak ziren. Gure kalkuluen arabera, Udalak aprobetxamendu-unitateei jarritako prezioa kontuan hartuta, lortutakoa baino 770.000 euro gehiago lortu behar ziren.

Circuito de Los Arcosek beste iritzi bat du. Oinoharrean jaso dugu iritzi hori, ezagutu daitezen bai enpresaren irizpidea eta bai Comptos Ganberarena<sup>(3)</sup>.

(3) Eskualdaketa hori dela eta, Circuito de Los Arcosek dioenez, "eskualdaketa jatorria da udalez gairik plan sektorialean eraikigarritasuna kalkulatzeko erabili ziren irizpideak ez zirela doi-doiak. Horrela, esate baterako, boxen eraikinari esleitutako homogeneizazio-koefizientea 0,1ekoa izan zen bakarrik, eta pelouseko guneei ezer ere ez zitzaion esleitu; gune balioaniztunetan, berriz, 2ko koefizientea esleitu zitzaion; gune bakoitzari esleitutako aprobetxamenduetan alde handiegia sortzen zen. Desdoitze horiek eragin zituen proiektuaren berezitasuna izan zen, eta erreferentziarik eza jakiteko zer aprobetxamendu edo eraikitze-eskubide eman behar zaien abiadura-zirkuitu bateko elementuei edo guneei; zirkuituari zegozkion lurzutiak aprobetxamendu-unitateak, desdoitze horiek gabe, udalez gairik plan sektorialean aurreikusitakoak baino gehiago izanen ziren. Behin desdoitze horiek egiaztatuta, bi aukera zeuden: tramitatzeko ari zen udalez gairik plan sektoriala deuseztatu eta beste bat egitea, zirkuituko guneei aprobetxamendu handiagoa esleitzeko, eta horrek atzerapenak eta gaitzespenak eraginen zituen, edo, bestela, udalez gairik plan sektorialarekin jarraitzea, idatzita zegoen bezala, eta gero aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa bat egitea, jabe bakoitza, azkenean, desdoitzetik ezean egokituko zitzaizkion lurzutiak jabe izan zedin. Aukera horiek ikusita, SPRINek iritzi zion hobea zela bere horretan tramitatzeko jarraitzea udalez gairik plan sektoriala eta, gero,

#### VI.4. ERAIKITZAILEAK LORTUTAKO ETEKINARI BURUZ

Parlamentu-taldeetako batek eskatzen du zehaztea zein izan den eraikitzailearen etekina, zeina, aldi berean, enpresako bazkide baita.

Txosteneko IV. epigrafeko mugetan aipatzen den bezala, ezin da eraikitzailearen etekina zehaztu bere kontabilitate-datuak ikusi gabe, eta datu horiek, jakina, pribatuak dira.

Diru gehiena obrak exekutatzetik etorri zaio eraikitzaileari; etekina, betiere, kontratu hori gauzatzeko izaniko kudeaketaren eta gastuen baitan dago.

Horregatik, eta, ahal den neurrian, parlamentu-eskariari erantzuteko, hona hemen Circuito de Los Arcosen eta Samaniegoren artean izan diren finantza-fluxuen azterketa.

Finantza-fluxuok –ez dira emaitzak– VI. eranskinean ikus daitezke zehaztasunez, eta multzo hauetan bil daitezke:

a) 781.000 euro, sozietatea sortu aurretik Samaniegok izaniko gastuen ordainetan; gastu horien fakturak egiaztatu ahal izan ditugu.

b) 1,6 milioi euro, sozietatea sortu aurretik Samaniegok izaniko gastuen ordainetan, Samaniegoren fakturen arabera.

c) Obra-ziurtagirien zenbatekoa. 2010eko urtarilaren 10ean, exekuzio materialak 26,8 milioi egiten zuen; horri 2,8 milioi gehitu behar zaizkio, gastu orokorren ehuneko 10ari zegozkionak hain zuzen, eta 1,6 milioi ere bai, etekin industrialaren ehuneko 6ari zegozkionak. Obra honen emaitza jakiteko, noski, eraikitzailearen kontabilitatea eza-gutu beharko litzateke, ez baitakigu zer kostu izan dituen obra honetan.

d) Samaniegok, milioi euro bat jarrita, Circuito de Los Arcos sozietatearen kapitaleko ehuneko bost eskuratu zuen.

e) Hirigintza-aprobetxamenduak Udalez gaindiko plan sektorialerako Samaniegok jarritako lursailak 116.960 metro koadro egin zuten, eta 12.505 aprobetxamendu-unitate eskuratu zituen.

Gainera, Udalari erosi egin zion, dirutu eta 183.907 euro ordainduta, nahitaez laga beharreko ehuneko 10a, hau da, 9.884 aprobetxamendu-unitate.

Circuito de Los Arcosi 54.406 aprobetxamendu-unitate erosi zizkion, 240.000 euroan, eta hirugarrenei 13.467 aprobetxamendu-unitate, 238.055 euroan.

Erosketa horiek eginda, eraikitzeko moduko lursailak dituen jabe bakarra da, behin kirolgunea eraikita, udalez gaindiko plan sektorialaren eremuaren barruan.

f) Konpentsazio Batzordea. Samaniegok Konpentsazio Batzordeko botoen ehuneko hamar du, eta kanpoko urbanizazioaren hornidurari dagozkion kontusailek eragindako gastuen ehuneko hamar hartuko du bere gain; hala ere, aprobetxamenduen ehuneko 79 dauka.

Esandakoez gain, gogoratu behar da Samaniegok, sinatutako protokoloarekin bat, Administrazioak Circuito de Los Arcos enpresan duen partaide-tza erosteko aukera izaten jarraitzen duela.

Aipatu denez, prezioa ezinen da izan Administrazioak jarritako dirua –kasuko KPIak gehituta– baino txikiagoa.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

*aipatzen den aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa egitea, hala saihestu egiten baitzen proiektuak gainkostuak eta atzerapenak izatea. Kontuan hartu behar da, aukera horrek honakoak zekartzala:*

*– Circuito de Los Arcosek abiadura-zirkuitua jarriko zen lurzatiaren azalera osoa lortzen zuen, eta lurzati horren gehieneko aprobetxamendua ere bai.*

*– Circuito de Los Arcosek, 1. lurzatiaren adjudikazio-hartzaile gisa, hasieran eremu horretarako jarri zuen terrenoa baino gehiago zuen bere esku, eta horretarako dirurik jarri behar gabe.*

*– Aprobetxamendu-unitateak eskualdatuta, Samaniegok ez zuen inongo abantaila edo etekin ekonomikorik lortu; izan ere, operazio horren helburua ez zen aprobetxamendu-unitate horiek eskualdatzea, baizik eta ahalik eta azkarrena konpontzea udalez gaindiko plan sektorialean zegoen desdoitze posible bat, halako moduz non, desdoitzerik ezean, ez baitzen eskualdatzerik behar izanen.*

*Aipatu beharra dago, azkenik, arrazoi berengatik ez datozela bat Konpentsazio Batzordearen kostuen banaketa edo batzordearen botoak jabe bakoitzak jasotako aprobetxamendu-unitateekin.*

**1. ERANSKINA. GEHIENKO AURREKONTUA, 2008-07-02KO AKORDIOAREN ARABERA**

Circuito Los Arcos, S.L.-ren proiektuen deskribapena	Zirkuituaren udalez gaindiko plan sektorialaren guztizko aurrekontuak (euroak, milakotan)	Konpentsazio proiektuen deskribapena	Batzordearen	Zirkuituaren udalez gaindiko plan sektorialaren guztizko aurrekontuak (euroak, milakotan)	
Los Arcosko abiadura-zirkuitua	14.337	Sarbidea, NA-129 errepidetik eta 1. glorieta		468	
Jolaserako eta kirolerako gunea	1.405	Abiadura zirkuiturako sarbideak		2.544	
Los Arcosko abiadura-zirkuitua: barruko urbanizazioa.	8.040	Kanpoko urbanizazioa		1.913	
Egoitza soziala	3.668				
Boxeak (I. fasea)	2.935				
Kontrol dorrea	832				
Medikuntza-zentroa	161				
Kontrol-etxetxea	36				
Boxeak (II. fasea)	1.886				
Ibilgailuen biltegia	383				
Helmugako zuzeneko harmailak	1.193				
					<b>OBRAK ETA GAINERAKOAK, GUZTIRA</b>
Exekuzio materiala, guztira	34.876	Exekuzio materiala, guztira	4.925	39.801	
Mozk. ind. eta gastu orok., % 16	5.580	Mozk. ind. eta gastu orok., % 16	788	6.368	
Exekuzioaren kontratua, guztira	40.456	Exekuzioaren kontratua, guztira	5.713	46.169	
BEZa	6.473	BEZa	914	7.387	
Obra zibila, guztira (BEZa barne)	46.929	Obra zibila, guztira (BEZa barne)	6.627	53.556	
Lursailak	1.500			1.500	
Aldez aurretik prestaketarako eginiko zuzemenak (BEZa barne).	1.436			1.436	
Proiektuak+Obra+Urbanizazio lizentziak	4.788		672	5.460	
Ekipamendua (BEZa barne) + hasierako zirkulatzaila	4.461			4.461	
CIRCUITO DE LOS ARCOS, S.L., GUZTIRA	59.114	KONPENTSAZIO BATZORDEA, GUZTIRA	7.299	66.413	

**II. ERANSKINA. CIRCUITO DE LOS ARCOS, S.L.-REN KAPITAL SOZIALA**

KONTZEPTUA	DATA	ZENBATEKOA	METATUA	SPRIN (*)			%	SAMANIEGO			%
				Zenbatekoa	Partaide-tza kop.	Partaide-tzak, metatuta		Zenbatekoa	Partaide-tza kop.	Partaide-tzak, metatuta	
KAP. SOZ.											
2007-06-25	2007-12-31	2.000.100	2.000.100	900.000	9.000	9.000	% 45,00	1.100.100	11.001	11.001	% 55,00
Handitzea	2008-02-06	2.000.000	4.000.100	900.000	9.000	18.000	% 45,00	1.100.000	11.000	22.001	% 55,00
Handitzea	200807-09	1.500.000	5.500.100	675.000	6.750	24.750	% 45,00	825.000	8.250	30.251	% 55,00
Handitzea	2008-08-05	4.500.000	10.000.100	4.500.000	45.000	97.250		0	0	30.251	
Trukea			5.500.100	2.750.000	27.500	52.250	% 95,00	-2.750.000	-27.500	2.751	% 5,00
Handitzea	2008-08-05	5.500.000	15.500.100	5.000.000	50.000	147.250	% 95,00	500.000	5.000	7.751	% 5,00
Kredituen konpentsazioa	2009-03-10	4.500.000	20.000.100	4.275.000	42.750	190.000	% 95,00	225.000	2.250	10.001	% 5,00
Guztira		20.000.100		19.000.000	190.000		% 95,00	1.000.100	10.001		% 5,00

(\*) 2009ko apirilean, SPRINen partaidetzak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion, eta 2010eko urtarrilean horrek Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren esku utzi zituen.

### III. ERANSKINA. SODENA SOZIE TATE PUBLIKOAREN XEDEA.

Sozietateak honakoak izanen ditu xede:

a) Azterlanak proposatzea, Nafarroako ekonomia oinarri hartuta, beharrezkoa gertatzen den arlo, jarduera eta sektoretan, horrela inbertsio-erabaki publiko nahiz pribatuei buruzko iritzia emateko.

b) Nafarroako enpresen artean enpresa-egiturak hobetzeko ekintza bateratuak bultzatzea, lehiakortasun handiagoa helburu.

c) Inbertsioak sustatzea Nafarroan, eta sortzeoak diren edo sortuak dauden sozietateetako kapitaletan parte hartzea.

d) Nafarroako enpresei maileguak eta abalak ematea.

e) Laguntzea, modu osagarrian, bideragarritasun baldintza objektiboak dituzten enpresen saneatze- eta birmoldaketa-prozesuak.

f) Ikerketako eta garapen teknologikoko proiektuak sustatzea, industriaren arloan, nekazaritzakoan, abeltzaintzakoan eta zerbitzuenean.

g) Besteren baliabideak lortzea enpresetara bideratzeko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legeko seigarren eta zazpigarren artikuluetan aurreikusitako moduan, bai eta era guztietako kredituak hitzartzea eta jesapenak negoziatzea ere.

h) Bideragarri jotzen dituen enpresen eskariak babestea kreditu entitate ofizialen aurrean eta Foru Administrazioaren aurrean, sustapen industrialeko arauekin bat.

i) Kapital finko soziala prestatzea eta sustatzea, eta, bereziki, lurzoru industrialak, erakunde publikoekin lankidetzan eta Nafarroako Gobernuak lurraldearen antolamendurako ezarritako irizpideekin bat.

j) Foru Administrazioari unean uneko neurri egokienak proposatzea sustapen industrialeko programak eguneratzeko eta horien eraginkortasuna indartzeko, eta beharrezkoak jotzen diren beste neurri batzuk ere proposatzea Espainia Europako Erkidego Ekonomikoan sartzeko ez dezan kalte larrikeria eragin Nafarroako ekonomian.

k) Erabakitzea zer inbertsio jotzen diren egoki- enak Nafarroarentzat, kontuan hartuta zer industria- edo merkataritza-jarduera den, daukan maila teknologikoa, merkatuan duen parte hartzea, edo positibotzat jotzen den beste edozein arrazoi.

l) Sustapen industrialeko programak ezagutzera ematea Nafarroan, Espainian eta interesgarrien jotzen diren herrialde guztietan, eta ezagutzera ematea, oro har, inbertsioak erakartzeko eta aberastasuna sustatzeko Nafarroako Gobernuak ezarritako dituen abantaila oro.

m) Kontaktuak sortzea inbertitzaile taldeekin, teknologia egokiak dituzten enprekin, sustapen eta garapen teknologikoko entitateekin, ikerketa zentroekin eta Nafarroaren eskualde-garapenerako baliagarria izan daitekeen beste edozeinekin.

n) Estatuan aplikatzen diren birmoldaketa planen edo programen ondoriozko finantzatze-ekinbidea osatzea, edo, behar izanez gero, ekinbide horri aurrea hartzea.

**IV. ERANSKINA BESTE ZIRKUITU BATZUETAKO DATU EKONOMIKOAK, MERKATARITZA ERREGISTROAREN ARABERA**

		(euroak, milioitan)					
Enpresa kudeatzailea	Zirkuitua.	Kapital soziala	Funts berekiak	Inbertsioa	Negoio-zifra	Ekitaldiko emaitza	Ustiapeneko emaitza
Circuito del motor y promoción deportiva, S.A.	Cheste						
	2007	17,3	-5,1	39,8	14,1	-9,5	-8,5
	2006	8,6	-4,3	41,9	12,2	-9,2	-9,7
	2005	43,8	-3,7	41,4	10,0	-6,6	-7,3
	2004	33,2	-7,7	43,4	9,3	-8,9	-9,0
	2003	22,0	-10,0	46,1	7,9	-9,2	-9,2
Circuito de Jerez, S.A.	Jerez						
	2007	55,0	24,3	60,0	5,1	-2,5	-0,5
	2006	55,0	26,9	60,6	5,2	-8,4	-0,9
	2005	12,6	-13,4	49,8	4,2	-1,9	-0,8
	2004	12,6	-11,5	49,9	3,9	-1,3	-1,3
	2003	12,6	-10,2	49,8	0,5	-3,1	-3,2
Circuits de Catalunya, S.L.	Montmeló						
	2007	74,3	76,4	70,4	44,3	1,8	3,6
	2006	74,3	74,6	65,8	39,7	2,7	1,7
	2005	74,3	71,9	64,4	35,2	0,2	1,9
	2004	71,7	69,1	65,8	30,8	-0,5	1,1
	2003	67,9	62,9	64,8	24,4	-5,4	-3,5
Reynaud España, S.L.	Montblancoko zirkuitua						
	2007	4,0	3,2	28,5	7,6 (*)	0,6	1,4
	2006	4,0	2,6	18,4	0,01	-1,2	-1,1
	2005	2,4	2,2	7,4	0,6	-0,05	-0,03
	2004	0,4	0,2	3,2	0,01	-0,1	-0,1
	2003	0,4	0,3	2,2	0,02	-0,05	-0,04

(\*) Jarduera izaniko 1. urtea.

**V. ERANSKINA. APROBETXAMENDU UNITATEEN BALIOA, IRIZPIDEAREN ARABERA**

Kontzeptua	AU kop.	Zenbatekoa	Prezioa (€/AU)	Azalpena
Samaniegori eskualdatutakoa, eskrituraren arabera	47.927,46	240.000,00	5,01	Hirigintza-aprobetxamenduen eskualdaketa jasotzen duen eskritura
Samaniegori eskualdatutakoa, gure kalkuluen arabera	54.405,64	240.000,00	4,41	Behin AU kopurua zuzenduta, hau kontuan hartuta dirutze bidez eskrituraren (2.765,88) eta Udalaren lurzatiatik ateratakoak (3.712,5)
Udalez gaindiko plan sektoriala (bideragarritasun ekonomikoa)	126.235,00	1.803.864,00	14,29	Kalkulu honetarako, lurzoruaren jasanarazpen-balioa hartu eta urbanizatzea kostatzen dena kendu eta kostu gehigarriak ere bai (% 10) Eredu-aprobetxamendua 0,1188ko
Samaniegori gainerako jabeen erositakoa.	17.179,70	303.671,63	17,68	Lurzatiak berrantolatzeke proiektuaren balorazio-txostena.
Hasieran erosi eta gero Circuito de Los Arcosi eskualdatu zitzaizkion lursailak	93.513,84	1.359.738,34	14,54	Kalkulua guk egin dugu, kontuan hartuta erositako metro koadro kopurua eta eredu-aprobetxamendua, eta lursail horien truke ordaindutakoa.
Lagapena dirutzeari buruzko hitzarmena	Ez da ageri	235.371,88	18,61	Kalkulua guk egin dugu, hitzarmenaren guztizko zenbatekoa zati 12.649,72 eginda. AU kopuru hori da lurzatiak berrantolatzeke proiektuaren arabera zegoen AU kopuruaren % 10.

## VI. ERANSKINA. ZIRKUITUA DELA-ETA SAMANIEGOK AURKEZTUTAKOEN, EGINIKO EKARPENEN ETA JASOTAKOEN ZERRENDA

Kontzeptua	Samaniegok jasotakoak	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Samaniegok aurkeztutako agiriak eta eginiko ekarpenak	Zenbatekoa (BEZik gabe)
Euskarri gisa faktura edo agiriren bat duten gastuak	Circuito de Los Arcosek Samaniegori itzultitakoa, Samaniegok aurretik ordainduak zituen fakturen ordainetan: topografia, altzariak, <i>merchandaisinga</i> , azterlan geoteknikoa, Federazioaren eskubideak eginiko azterlanagatik, TN&GPOren ordainsariak, webgunea, etab. Fakturak erantsi dira.	106.769,42	Prestaketa gastuengatik fakturak, Samaniegoren izenean.	106.769,42
	Samaniegok Circuito de Los Arcosi igorritako faktura, abiadura-zirkuituko Proiektuaren Zuzendaritza Integralak bidalitako eta berrikusitako proiektuekin bat.	541.506,31	Ordainsariei buruzko agiri egiaztatu gabeak.	541.506,31
	Kontratu pribatuak sinatzean kontura emandako zenbatekoen itzulketa, Circuito de Los Arcosek egina.	132.523,56	Lursailak erosteko kontratu pribatuak sinatzean –geroago eskrituran egiaztatuak– Samaniegok emandako zenbatekoa.	132.523,56
Euskarri gisa Samaniegoren faktura bai, baina beste agiririk ez dutenak euskarri	Samaniegok Circuito de Los Arcosi igorritako faktura, udalez gaindiko plan sektoriala nahiz lurzatiak berrantolatzeke proiektua idatzi eta tramitatzegatik (112.000), eta ideia garatzeagatik eta abian jartzeagatik, udalekin eta beste entitate batzuekin bilerak eginez, gehi dietak eta lursailen erosketa (50.000).	162.000,00		
	Samaniegok Circuito de Los Arcosi igorritako faktura, udalez gaindiko plan sektorialaren tramitazioa eta jarraipena egiteagatik, bai eta lurzatiak berrantolatzeke proiektuaren tramitazioa eta jarraipena egiteagatik ere, eta proiektuen koordinazioa lortzeko kudeaketa eta aholkularitzagatik, gehi idazketaz arduratu ziren profesionalak bilerak.	93.000,00		
	Samaniegok Circuito de Los Arcosi igorritako faktura, proiektuaren exekuzioaren ondoriozko kontratuetan behar izandako laguntza juridikoagatik, aholkularitzagatik eta bitartekaritzagatik.	147.000,00		
Obra-ziurtagiriak	Samaniegok Circuito de Los Arcosi igorritako faktura, abiadura-zirkuituaren alde aurreko negoziaketengatik eta prestaketa-zuzemenengatik (alderdi teknikoaren diseinua, alderdi administratiboaren tramitazioa eta alderdi materialen koordinazioa), bai eta babesagatik eta sostenguagatik.	1.237.522,50		
	2010eko urtarrilaren 31ra arte	26.798.137,85		
	% 10, gastu orokorrak	2.679.813,78		
	% 6, mozkin industrialak	1.607.888,27		
Circuito Los Arcos S.L.-ri eginiko kapital-ekarpena			Kapital sozialaren % 5	1.000.000,00
Hirigintza-aprobetxamenduak	Lursailen ekarpena	12.505,34 AU	Bere jabetzakoak ziren 116.960 m <sup>2</sup> , udalez gaindiko plan sektorialean sartzeko	Ez dago jasota
	AUen % 10, lurzatiak berrantolatzeke proiektuaren arabera	9.883,84 AU	Udalari hitzarmenaren arabera ordaindutako zenbatekoa (nahitaezko lagapenaren % 10)	183.907,53
	Circuito de Los Arcosek eta beste partikular batzuek Samaniegoren alde eginiko aprobetxamendu-eskualdaketa.	54.405,64 AU	Eskrituraren arabera, Circuito de Los Arcosi ordaindutako zenbatekoa	240.000,00
		13.467,20 AU	AUak erostea hirugarrenei; hain zuzen ere, lurzatiak berrantolatzeke proiektuko balorazioaren arabera gutxieneko azalerara iristen ez ziren lurzatiak jabeek.	238.055,92
Konpentsazio Batzordea		Botoen % 10 Konpentsazio Batzordean	% 10 kanpoko urbanizazioko hornidurarako kontusailetan. 2010 urtarrilera bitarte.	22.770,92

AU = aprobetxamendu-unitateak



**GRUPO SAMANIEGO, S.L.-K BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Vianan, 2010eko ekainaren 21ean

Ikusita Nafarroako Comptos Ganberak Nafarroako Abiadura Zirkuituaren eraikuntzari buruz egin duen behin-behineko txostena, jakinarazten dugu ez diogula txosten horri alegaziorik eginen.

Adeitasunez,

Alberto Bretón Rodríguez

Grupo Samaniegoko zuzendari nagusia

**SOCIEDAD DE PROMOCIÓN DE INVERSIONES E INFRAESTRUCTURAS DE NAVARRA, S.A. SPRINEK, BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Pablo Romera Alonso jauna, adinez nagusi, NAN zk. 50.724.958-E, Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. SPRIN merkataritzako sozietatearen izenean, zeinak helbidea baitu Iruñean, Sarasate pasealekuko 3. zenbakian, 5. esk., eta 2005eko apirilaren 30ean baimendutako eskritura publikoaren bidez eratu baitzen denbora-mugarik gabe, eta zeina Nafarroako Merkataritza Erregistroan baitago erregistratuta, 1128. liburukia, 158. folioa, NA 22624 orria eta IFZ zk. A31848351, erakunde honen aurrean agertu eta honakoa DIO:

1. 2010eko ekainaren 9an, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpena jaso nuen, zeinaren bitartez onesten baita Los Arcosko abiadura-zirkuituaren proiektuari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena; ebazpen horretan bertan, 2010ko ekainaren 9ra bitarteko epea ematen da alegazioak egiteko, eta ohartarazten da alegazioak ez badira argi eta garbi, eta zuzenean, txostenean ageri diren ondorioei eta iritziei buruzkoak, ez direla aintzat hartuko eta ez direla txostenean jasoko.

2. Horrenbestez, hona gure alegazioak.

**ALEGAZIOAK**

**LEHENBIZIKOA.**- Aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa

Behin-behineko txosteneko V. epigrafean, ondorioak eta gomendio orokorrak izenekoan, B atalean hain zuzen, legezko alderdiei buruzkoan, Circuito de Los Arcosok Samaniegori aprobetxamendu-unitateak eskualdatu izana aipatzen da. Esaten da, zehazki, eskualdaketa hori talde bereko enpresen arteko operazio baten ondorio dela,

eskualdaketa prezio finko baten truke egin zela, eta, era horretan, prezioa nabarmen baxuagoa izan zela udalez gaindiko plan sektorialaren azterlanen ondorioz eta eginiko eskualdaketatik ateratzen dena baino.

Era berean, gai horren aipamena ere egiten da txosteneko beste atal batzuetan; esate baterako, VI.3.2 atalean –udalez gaindiko plan sektorialari buruzko iruzkin eta oharrak– eta VI.4 atalean –eraikitzaileak lortutako etekinari buruzko iruzkin eta oharrak–.

Hirigintza-aprobetxamendu horien eskualdaketari buruz eta behin-behineko txostenak horri buruz egiten duen azterketari buruz, alderdi honek hurrengo agertu nahi du:

Txostenean bertan behin baino gehiagotan ongi esaten denez, talde bereko enpresen arteko operazio erabat legezkoa da, alderdiek egin adostutako prezio baten truke. Horregatik, uste dugu ez zela operazio hori aipatu behar legezko alderdiei buruzko ondorioen atalean, interpretazio okerrak eragin baititzake, ez datozenak bat egin-tza horren legezkoatasunarekin

Operazioaren legezkoatasuna argia da. Notarioaren aurrean gauzatu zen, eta egin zena izan zen udalez gaindiko plan sektorialak berak mugatutako esparruan zertutako hirigintza-prozesu baten ondoriozko aprobetxamendu-unitate kopuru bat eskualdatu; operazio horretarako adostu zen prezioari buruz, hitz egiten da txosteneko beste atal batzuetan.

Are gehiago: atal berean aipatzen da legezkoak izan zirela, esaterako, udalez gaindiko plan sektorialaren tramitazioa, Udalari egin beharreko % 10eko lagapenaren dirutzea, urbanizatzeko-gastuen banaketa, zeina Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera egin behar baita, edo are zirkuituaren obren adjudikazioa ere, kontuan hartuta proiektua sustatu zuen merkataritza-sozietatearen kideetako batek izaera publikoa zuela. Uste dugu, azken batean, ez bada lege-oharpenik egin behar operazioari buruz, komeniko litzatekeela gai hori legezko alderdiei buruzko ondorioetatik kanpo uztea, betiere Comptos Ganberak egoki irizten badio.

Circuito de Los Arcosok Construcciones Samaniegori aprobetxamendu-unitateak eskualdatu izanari buruz, eta Comptos Ganberaren behin-behineko txosteneko VI.3.2 eta VI.4 epigrafeetan jartzen duenari buruzko alegazio gisa, honakoa adierazi behar dugu:

### Aurrekariak

Denok ongi dakigunez, Los Arcosko abiadura-zirkuitua, hasieran, ekimen erabat pribatuko proiektua izan zen, eta proiektu gehienak tramitatzen hasita zeuden, bereziki udalez gaindiko plan sektoriala, Nafarroako Gobernuak SPRIN sozietate publikoaren bidez zirkuituaren proiektuarekin bat egiteko erabakia hartu baino lehen.

Horren aurretik, Circuito de Los Arcos, S.L. sozietatea, zeina berariaz sortu baitzen abiadura-zirkuitu bat ezartzeko hirigintza-gune jakin batean, inguruko lursailak erosten joan zen, behin tramiteak hasten zirenean, eta jarduketa-gunea zehazten zenean, ehunekorik handiena berak izateko.

Udalez gaindiko plan sektorial horrek –2007ko urriaren 22an onetsi zen plana behin betikoz– jasotzen zuen, eta hirigintza-leggedian ere hala behar dela ezartzen da, aprobetxamenduak edo eraikitze-eskubideak banatuko zirela oinarri hartuta gune bakoitzari zegozkion homogenezazio-koefizienteak, koefiziente horiek erabakitzean kontuan hartuta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 102.2 artikulua; koefiziente horiek hirigintza-araudiko 12.5 artikuluan ezarri ziren.

Alderdi honek jakin badaki lan zaila izan zela erabakitzea gune bakoitzari zer homogenezazio koefiziente ezarri behar zitzaion, proiektua berezia baita: ez dago Nafarroan antzeko azpiegiturarik ezta koefiziente horiek erabakitzen lagun dezakeen erreferentziarik ere, banaketa-area ez baita ohikoa. Horrela, konparazio baterako, zirkuituarekin zerikusia zuten eraikinei (kontrol-dorrea, boxeak, medikuntza-zentroa, harmailak, nabe osagarriak...), 0,1eko koefizientea aplikatu zitzaion, eta

koefiziente hori bera aplikatu zitzaion sortu ziren azpilurzatiei edo pelouseko guneei –pelouseari ez zitzaion batere aprobetxamendurik esleitu–. Egoitza sozialerako eraikinari 1eko koefizientea eman zitzaion, eta lurzati balioaniztunei 2koa. Lurzati balioaniztunei koefiziente hori esleitzeko, erreferentziatzen hartu zen zer koefiziente esleitu ziren zirkuituarekin muga egiten duten industrialdean –Lizarrako jarduera ekonomikoetako eremua du izena–. Garrantzitsua da zehaztea koefiziente horiek aplikatzea bidezkoa dela; izan ere, koefizienteok merkatu-balioen arabera eman behar dira, eta hori, jakina, horrelako proiektu batean, baloratzen zaila den parametro bat da.

Horrenbestez, beraz, aldeak sortu ziren, handi-egiak gure ustez, lurzati balionaztunei esleitutako aprobetxamenduaren eta zirkuituaren esparruan hirigintza-aprobetxamendua izan zezaketen gainerrako lurzatiei esleitutako aprobetxamenduaren artean; gainera, Circuito de Los Arcos eta Construcciones Samaniegoren asmoa zen, behin lurzatiak berrantolatzeke proiektua onetsita, Construcciones Samaniegori, eremu horretako kide izategatik eta jarri zituen lursailak kontuan hartuta, lurzati balioaniztunak esleitzea, eta sozietaterari, berriz, 1. lurzatia; izan ere, jabe txikiak, zeinak kudeaketaren eta etekinen nahiz zamen banaketaren parte baitziren, kudeaketa horretatik kanpo gelditu behar zuten 35/2002 Foru Legeko 150. f) artikulua aplikatzearen ondorioz.

Ondoren, eta azalpen gisa, taula bat jarri dugu, non kalkulatuta agertzen baita zer aprobetxamendu esleitu zitezaizkion lurzati bakoitzari homogenezazio koefiziente desberdinak esleitu izan zitzaizkion.

ATERA ZIREN LURZATIEN ERAIKIGARRITASUNA			
SORTUTAKO LURZATIAK	AZALERA ERAIGARRIA m <sup>2</sup>	KOEFIZIENTEA	ERAIGARRITASUNA
			Aprobetxamendu-unitateak
<b>1. KIROL DOTAZIOETARAKO LURZATIA</b>			
<b>1.1. ABIADURA ZIRKUITUARI DAGOKION AZPILURZATIA</b>			
ZIRKUITUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAIKINAK			
KONTROL DORREA	1400	1	1400
BOXEAK	13.500	1	13.500
MEDIKUNTZA ZENTROA	400	1	400
KONTROL ETXETXOA	150	1	150
ERAIKIN OSAGARRIAK	1.500	1	1.500
HARMAILA NAGUSIAK	3.400	1	3.400
NABE OSAGARRIAK	3.000	1	3.000
ERABILERA PRIBATUKO APARKALEKUA	116.000	0,6	69.600
ABIADURA PISTA	145.000	0,75	108.750
GAINERAKO AZALERA	423.906	0,25	105.977
		<b>1.1 AZPILURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>307.677</b>
<b>KARTINGERAKO 1.2 AZPILURZATIA</b>			
ZIRKUITUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAIKINAK			
BOXEAK	400	1	400
ERABILERA PRIBATUKO APARKALEKUA	800	0,6	480
ABIADURA PISTA	8.000	0,75	6.000
GAINERAKO AZALERA	38.146	0,25	9.537
		<b>1.2 AZPILURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>16.417</b>
<b>QUAD-ETARAKO 1.3 AZPILURZATIA</b>			
ZIRKUITUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAIKINAK			
BOXEAK	400	1	400
ERABILERA PRIBATUKO APARKALEKUA	1.500	0,6	900
ABIADURA PISTA	11.000	0,75	8.250
GAINERAKO AZALERA	43.226	0,25	10.807
		<b>1.3 AZPILURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>20.357</b>
<b>ZIRKULAZIO HEZKUNTZARAKO 1.4 AZPILURZATIA</b>			
ZIRKUITUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAIKINAK			
BOXEAK	200	1	200
ERABILERA PRIBATUKO APARKALEKUA	300	0,6	180
ABIADURA PISTA	8.000	0,75	6.000
GAINERAKO AZALERA	2.854	0,25	714
		<b>1.4 AZPILURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>7.094</b>
<b>EGOITZA SOZIALERAKO 1.5 AZPILURZATIA</b>			
EGOITZA SOZIALERAKO ERAIKINA			
EGOITZA	4.700	1	4.700
ERABILERA PRIBATUKO APARKALEKUA	400	0,6	240
GAINERAKO AZALERA	8.572	0,25	2.143
		<b>1.5 AZPILURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>7.083</b>
		<b>1. LURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>358.626</b>
<b>2. LURZATI BALIOANIZTUNA 01</b>			
BALIOANIZTUNA: MERKATARATZIRAKO	22.500	2	45.000
		<b>2. LURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>45.000</b>
<b>3. LURZATI BALIOANIZTUNA 02</b>			
BALIOANIZTUNA: MERKATARATZIRAKO	22.500	2	45.000
		<b>3. LURZATIA, GUZTIRA</b>	<b>45.000</b>
		<b>UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALA, GUZTIRA</b>	<b>448.626</b>

Emaitza horrek, ekipamendu balioaniztunerako lurzatiei esleitutako aprobetxamendua aldatu gabe, hau esan nahi du:

- Eremuaren eredu-aprobetxamendua 0,4221ekoa da: balio hori bat dator beste hirigintza-transformazio batzuekin.
- Zirkuituaren lurzatiek (zirkuitua) eta lurzati balioaniztunek (Samaniego) duten pisuaren arteko erlazioa 80/20 da.
- Circuito de Los Arcosek duen aprobetxamendua 1. lurzatiak duen aprobetxamenduaren antzekoa da, eta hori bat dator jarri zuen lursailarekin eta hirigintza-antolamenduaren helburuarekin.

Kasu hipotetiko horretan, Circuito de Los Arcosek jabe txikien aprobetxamendutik zerbait eskuratu beharko zuen, eta, gainera, Udalarentzako dirutu zen % 10ean ere dezente lagundu beharko zuen. Samaniego izan da, benetan, jabe txikiei eta Udalari ordaina emateko dirua jarri duena.

Horiek horrela, sozietateak, zeinak hasieran lursail asko erosi baitzituen, ikusi zuen lursail horiek guztiak jartzeagatik eta zirkuituaren lurzatiari aprobetxamendu txikia esleitu zitzaiolako, lurzati balioaniztunetatik asko berari esleitu zitzaizkiola, eta horiek, ondo bidean, Construcciones Samaniegori esleitu behar zitzaizkiola, hala agintzen baitzuten bai Construcciones Samaniegoren bai Circuito de Los Arcosen beharrek eta nahiek.

Egoera horren aurrean, bi aukera zeuden:

(i) Tramitatzen ari zen udalez gaindiko plan sektoriala deuseztatu eta beste bat egitea, zirkuituko zenbait guneri aprobetxamendu gehiago esleitzeko; horrek atzerapenak eta kostu gehigarriak eragingen zituen.

(ii) Udalez gaindiko plan sektoriala zegoen horretan tramitatzen jarraitzea, eta aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa bat egitea, halako moduz non jabe bakoitza, azkenean, desdoitzerik ezean egokituko zitzaizkion lurzatiaren jabe izan zedin.

Desdoitze horiez jabetzean, eta behin egiaztatuta zirkuituko zenbait zatiri esleitutako eraikigarritasun urria ez zela legez kanpokoa, Circuito de Los Arcosek erabaki zuen tramitatzen jarraitzea udalez gaindiko plan sektoriala, eta egitea aipagai dugun aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa.

Garrantzitsua da, gure ustez, gertakari horiek denak aipatzea; izan ere, erabaki horiek hartu zirenean, Nafarroako Gobernuak, SPRINen bidez, gutxiengoa zuen Circuito de Los Arcos, S.L. sozietatean. Era berean, bi aukeretatik, gure ustez, aukera zuzenaren alde egin zen: udalez gaindiko plan sektoriala deuseztatu izan balitz, atzerapena saihestezina izanen zen ia seguru, eta horrek ekarriko zuen plan hori ez gauzatzea ezarria zegoen moduan eta ezarriak zituen helburuekin.

Aurreko guztiagatik, eta aurreikusten zenez aldeek nahi zutena ez zela bat etorriko lurzatiaren berrantolamenduen ondotik esleitu zitzaizkien lurzatiekin, erabaki zen Circuito de Los Arcosek soberan zuen aprobetxamendua Samaniegori eskualdatzea. Horrela, 2007ko ekainaren 17an, kontratu pribatu bat sinatu zen, zeinaren bitartez eskualdatu baitzen abiadura-zirkuitua ezartzera bideratuko ez den erabilera tertziarioa eta balioaniztuna; hori gauzatzeko, berdinbanaketarako kasuko tresnan ateratzen diren erabilera balioaniztuneko lurzati edo lurzatiak esleitu dira aldeek adostutako prezio baten truke; 2008ko uztailaren 21ean eskritura publikoa sinatu zen zehazki ezarri zenbat aprobetxamendu-unitate eskualda zitezkeen berdinbanaketarako proiektua onetsi ondoren.

Operazio berezia da, hirigintza-garapenetan gertatzen ez dena, baina egin zitekeena, geunden egoeran egonda: azken batean, eremu berean helburu desberdinak dituzten bi enpresaren artean gauzatutako hirigintza-jarduketa bat.

#### Prezioa

Aurreko guztia esanda, eskualdaketa prezioa da atentzioa eman diona behin-behineko txostena idatzi duenari, eta, zehazki, prezio hori izatea gainerako eskualdaketa bakoitzaren baxuagoa.

Bada, alde honen iritziz, ez da salneurrien konparaketa soil bat bakarrik egin behar eskualdaketa honen eta, adibidez, txostenean esaten den moduan, udalari nahitaez lagatzeko moduko aprobetxamenduaren % 10aren dirutzearen artean; orain azalduko ditugun zenbait arrazoi direla medio da hori horrela:

– Ohiko egoera da ondasun bat egotea (lursail bat) eraikitze-erabilera batzuk dituen (AUak). Hori da aurreikusten dena, esate baterako, udalez gaindiko plan sektorialean AUak baloratzen direnean, edo, era berean, % 10eko lagapenerako aurreikusten dena (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezartzen denez, 100. artikuluko d) letran hain zuzen, lurzoru urbanizagarriaren jabeek "esku hartzen duen administrazioari laga beharko diote, nahitaez eta dohainik, kasuan kasuko sektore edo esparruko aprobetxamenduaren 100eko 10ari dagokion lurzoru kopurua". Legeak aurreikusten du, halaber, jabeak gelditu daitezkeela, ordain ekonomiko baten truke, lursail horiekin, eta ordain ekonomiko hori erabakitzeko erabiliko diren irizpideak izanen direla Lurzoruaren Legean lursailak baloratzeko ezartzen diren irizpideak; besteak beste, lekuaren balioa, sustapenean izaniko kostuak eta gastuak, erabilerekin jasanarazpen-balioa... Gauza bera gertatuko da jabe txikiekin, zeinak, 35/2002 Legean ezarritakoaren arabera, jarduketatik kanpo geldituko baitira beren lurzatiek ez izateagatik eraikitze behar den gutxiengo azalerarik. Eskualdatu, beren lursailak eskualdatuko dira, eta horiek aprobetxamendu jakin bat dute esleitura.

– Hala ere, alegazioak aipagai duten eskualdaketa, eskualdatu zena izan zen erabilera soil bat, ondasun zehatz bati lotu gabea, eraikitze-erabilera edo aprobetxamendu horiek zer lursailetan gauzatu ziren ezarri gabe baitzegoen; kontratu pribatua, izan ere, sinatu zen lurzatiak berrantolatzeko ondoriozko lurzatiei aprobetxamenduak esleitu aurretik.

Gogoratu behar da, gainera, kontratu pribatu horrek izaera globala zuela, halako moduz non klausuletako edozein deuseztatuz gero edukia legezkoa ez izategatik, prezioaren klausula –enpresen arteko operazio baten zati gisa gelditu zen finkatua– ez zela loteslea izanen.

Hau da, hemen aztergai dugun operazioan eskualdatu zena izan zen eraikitze-eskubide gauzatu gabe bat, zerbait abstraktua eta etorkizun zegoena; baina, udalari lagatzeko modukoak ziren lursailek edo jabe txikien lursailek, aldiz, esleituta zuten jadanik aprobetxamendu zehatz bat. Hor dagoena, beraz, eraikitze-eskubide horien titularaldaketa bat da. Hortaz, abstrakzio-ariketa bat dago egin beharra, ez baitziren lursailak aldatu, baizik eta horien gainean zegoen eskubidea. Lurzati balioaniztunen AUak hor jarraituko dute, baina lurzati horien titulartasuna ez zen aldatu; are gehiago, titulartasunik ez zegoen, kontratu pribatua sinatu zenean egin gabe baitzegoen artean berdinbanaketarako proiektua, zeinak titular bakoitzari esleitzen baitio ateratzen diren lurzatietatik dagokiona. Aldatzen zena zen lurzati horien gaineko eskubideen titulartasuna, eta balorazioak, beraz, ezin zuen berbera izan

– Esan beharra daukagu, orobat, arau batek eskubide batentzat helburu batekin ezar dezakeen balioa eta eskubide horrek merkatuan izan dezakeen balioa ez direla balio bera.

Nahitaezko lagapenerako % 10aren balorazioa ez zen jabeen eta Udalaren negoziaketa baten ondorio izan, baizik eta Lurzoruaren Legeak ezartzen duena (kasu honetan, Lurzoruaren eta Balorazioen 1998ko Legea). Hala ere, Construcciones Samaniegori AUak eskualdatu izana enpresa pribatuen arteko operazio bat izan zen, eta, beraz, prezioa alde bien arteko negoziaketatik atera zen, eta hala behar du.

Horrela, ondokoak hartu behar dira kontuan:

(i) Eskualdatu ziren AUak izan ziren Circuito de Los Arcosek soberan zituenak, hau da, Circuito de Los Arcos sozietateak etekinik atera ezin zienak, non eta ez zituen saltzen.

(ii) Circuito de Los Arcosek AU horiek pertsona juridiko bakarrari sal ziezazkion (Construcciones Samaniegori), hori baitzen eremu horretako beste jabe bakarra.

Azken batean, eta konparazioa balekoa bada, Circuito de Los Arcosek egin zuen bakarra izan zen baloratu ea gehiengoa zuen sozioak zenbateko desdoitzea eragin zuen udalez gaindiko plan sektorialaren eremuko lursailei aprobetxamenduak esleitzean, eta horren ordainetan kanon bat ezarri;

hau da, operazioa inoiz ez zen lursailen eskualdaketatzat jo, baizik eta eskubideen eskualdaketatzat.

#### Ondorioak

Aipatutako guztiak, eta egindako guztiak, ondorio batzuk digu; hauek dira:

– Circuito de Los Arcosen interesak bete dira hirigintza-antolamenduarekin.

– AUen desfase hori (gehiengoa zuen bazkideak eragina, modu artifizialean) baloraterakoan, ez dago erreferentziatzen hartzerik Udalari zein jabe txikiei AU bakoitzeko ordaindu zitzaiena.

– Circuito de Los Arcosek erabili izan balu desfase hori alegatzeko aprobetxamendu horren balioa izan zitekeela Udalari eta jabe txikiei aprobetxamenduaren truke ordaindu zitzaienaren adinakoa, jarduketa gelditu eginen zen, eta hori sozietatearen interesen erabat kontrakoa zen.

– Adostutako prezio finkoa, bi enpresa pribatuen negoziaketaren ondorio, bi aldeek onartu zuten; Circuito de Los Arcosek bere helburu urbanistikoa lortu zituen, eta diru-sarrera gehigarri bat ere bai. SPRINi, bi sozietate horietako batean bazkide gutxiengoduna zen aldetik, egokitu zitzaion aztertzea ea hautatutako aukera kaltegarria gertatzen ote zitzaion. Horri dagokionez, adierazi beharra dago, lehen ere aipatu denez, aukera horren alde eginda atzerapenak saihesten zirela proiektuaren exekuzioan, eta gainkostuak ere bai, eta, beraz, SPRINek iritzi zion ez zela kaltegarria gertatzen bere interesentzat.

Azken batean, oharrarazi behar da, eta hala da gure iritzian, Construcciones Samaniegok ez duela etekin ekonomikorik lortu AUen eskualdaketaekin, operazio horren helburua baitzen aurretik gertatutako desdoitze bat ahalik eta azkarrena konpontzea; desdoitze hori ezean (ikus esleitutako aprobetxamenduei buruz jarri dugun koadroa) eskualdatzea ez zen beharrezkoa gertatuko, eta, beraz, hala agertu beharko luke Comptos Ganberaren behin betiko txostenean, eta ez soilik sozietatearen iritzi gisa.

Gainera, aipatu dugunez, hirigintza-garapentan ohikoa ez den operazio bat da, eta berariaz egin behar izan zen. Hain zen kasu berezia, non inplikaturako aldeek, eta parte hartu zuen notarioak ere bai, zorrotasun handiz baloratu behar izan zuten. Operazioaren legezotasuna argia da, baina ez denez ohikoa, eskualdaketa hori ezin da alderatu, eta ez da alderatu behar, zirkuituko garapen urbanistikoa esparruko beste edozein transakzioarekin. Izan ere, ez baita gauza bera lurzati berrantolamenduaren ondoriozko lursail edo lurzati



ezartzen dena, hau da, jardute-oinarrien bidez ezarriko dela urbanizatzeko obrak exekutatzeko prozedura. Hirugarrenik, berriz, aipa daiteke erregelamendu horretako 176.3 artikuluan ezartzen dena konpentsazio batzordearen eta kontratistaren arteko kontratuari buruz, non Administrazioari egiten zaion aipamena den soilik exekutatutakoa kontrolatuko duela, udala bera izanen baita obrak onartu beharko dituen.

Hori horrela izan da hirigintzako araudia erregularizatu zenetik, nahiz eta badiren –egia da– beste xedapen batzuk pentsaraz dezaketena badela Administrazioaren kontrol hori. Izan ere, alde honek ez du inoiz ukatu konpentsazio batzordeen izaera hibridoa, halaxe onartu baitu etengabe jurisprudentziak eta doktrinak, nahiz eta joera beti izan den Administrazioaren ente kolaboratzailetzat jotzea; hala egiten du, konparazio baterako, Auzitegi Goreneko 1989ko epai batek: *...konpentsazio batzorde bat eratzearen bidez, zeinak autoadministrazioko egoera bat sorrarazten baitu: interesdunak beraiek dira, hartarako eskuordetuta, planeamendua exekutatzearen eginkizun publikoa gauzatzen dutenak, eta, hala, konpentsazio batzordea Administrazioaren eragile deszentralizatu bat bihurtzen da...*

Kompentsazio batzordearen izaera administratiboa, doktrinak eta jurisprudentziak adierazten dutenez, batzordearen jardura publikoei bakarrik dagokie; bere jardueraren beste zati bat zuzenbide pribatuaren pean gelditzen da, eta hor sartzen da, gure ustez, obren adjudikazioa. Horren alde egiten dute hainbat eta hainbat epaik; esate baterako, Auzitegi Gorenaren 1989ko urriaren 30ekoak edo Madrileko Auzitegi Nagusiaren 2003ko apirilaren 17koak.

Gai honi dagokionez, garrantzitsua da Madrileko Auzitegi Nagusiaren 2006ko ekainaren 6ko epaia. Epai horrek, besteak beste, hau dio: *inork ez du eztabaidatzen konpentsazio batzordeek izaera administratiboa dutela eta jarduten ari den hirigintza-administrazioaren menpe daudela: izaera administratiboa Lurzoruaren 1976ko Legeko Testu Bategineko 1272 artikuluan dago jasoa; artikulua horretako 4. idatz-zatiak konpentsazio batzordeko zuzendaritza organoan administrazio horretako kide bat sartzen du, eta, 5. idatz-zatiaren arabera, batzordearen erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke administrazio horren aurrean. Problema da, ordea, zein den konpentsazio batzordeak gauzatzen duen eginkizuna. Konpentsazio batzordeen funtsezko helburua da konpentsazio proiektu bat prestatzea eta urbanizatzeko obra exekutzea, eta batzordearen existentziaren arrazoia da jabe guztiak modu soli-*

*darioan biltzea; ohartarazi behar da sistema horren bidez jabeek urbanizatzeko lanak beren kasa egiten dituztela, batzordearen bidez. Gainerakoan, harreman juridikoa konpentsazio batzordearen eta Administrazioaren artean gertatzen da, nahiz eta urbanizatzaileak ere biltzen diren, eta konpentsazio batzordeak zuzenean erantzuten du Administrazioaren aurrean exekuzio-unitatea erabat urbanizatzeko (Lurzoruaren 1976ko Legeko Testu Bategineko 130 artikulua).*

*Edonola ere, hirigintza-jarduketetan, kontrola eta zuzendaritza beti publikoak badira ere, bi exekuzio-eredu erabat ezberdin erabil daitezke, batzuk publikoak eta beste batzuk pribatuak, erraz ondorioztatu daitekeenez Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legeko 4. artikulutik; pribatuetatik, paradigmatikoa konpentsazio bidezko kudeaketarena da. Konpentsazio sisteman argi ikusten da hori lurzoria transformatzeko jardura enpresarial bat dela, jabetzaren eta enpresa askatasunaren eskubideak (Konstituzioko 33. eta 38. artikulua) errespetatzeko konpromisoarekin; hirigintza-jarduketa publikoko kasuetan, aldiz, ekimen ekonomiko pribatua sakrifikatu egin daiteke. Are gehiago, 8/1990 Legeko jabetza eskubidearen estatutuan, urbanizatzeko hartzen zen lurzoruaren jabeen eskubide edo ahalmentzat, zeinak banaka edo elkarrekin jardun zezaketen exekuzio-unitateen esparruan.*

*Begi bistakoa gertatzen da urbanizatzeko lanen bidez lurzoria transformatzeko obra publiko bat gauzatzea dela, baina horrek ez du esan nahi, ezta konpentsazio batzordea obra urbanizatzailea autoadministrazioan egiten duen pertsona juridiko-administratibo gisa hartzeak ere, administrazio publikoen kontratazioari buruzko arauak aplikatu behar direnik eta publikotasunaren nahiz lehiaren printzipioak bete behar direnik.*

*Administrazioak hirigintzako jardunaren kontrola eta zuzendaritza izateak, beraz, ez dio ekimen pribatuari eragiten exekuzioari berari dagokionez, hori konpentsazio batzordeari baitagokio, eta ez enpresa urbanizatzaileei, zeinak zeharka egin baititzakete obrak horiek, konpentsazio batzordera bilduta edo bildu gabe. Aurkako tesia onartuko bagenu, hau da, exekuzioa publikoa dela eta, beraz, administrazio publikoen kontratuei buruzko legediaren pean gelditu behar duela, ondorio bakarra ez litzateke izanen horrek urbanizatzailea hautatzeko moduari eraginen liokeela, baizik eta konpentsazio bidezko kudeaketa bera ere azpikoz gora botako luke; izan ere, Administrazioak, sistema hori aukeratuta, ez lieke beste enpresaburu batzuei parte hartzeko aukerarik emanen, eta horrek ez dirudi posiblea denik, estua baitute oso*

*lotura jabetzaren eskubideak eta transformazioa sustatzeko eta urbanizatzeko eskubideak, zeinak berezkoak baititu gure hirigintza-sistemak.*

- Aztergai dugun kasuaren modukoetan, interpretazio-irizpideak hautatzean joerak izan behar du irizpide logikoak hautatzearena eta ez salbuspenezko irizpideak; izan ere, gure Kode Zibilak ezartzen duen bezala, arauak interpretatzean kontuan hartu behar da unean uneko errealitate soziologikoa. Hori horrela, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 2. e) artikulua edo Lurzoruaren Legeko 6. b) artikulua interpretatzean, nekez esan daiteke konpentsazio batzordeek, kontratatzerakoan, arau horiei jarraitu behar dietela; izan ere, batzorde horiek, orain arte, kontratazio pribatuaren pean gelditu izan dira, eta konpentsazio sistema –horren barruan daude konpentsazio batzordeak–, uneotan, sistema pribatua da eta ez publikoa, hala adierazten baitu espresuki Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 156. artikulua, halako moduz non, sistema pribatu bat bada, sistema pribatu baten moduan funtzionatu behar duen, bestela zaila baita ulertzea zergatik ezarri duen legegileak sistema publikoen eta pribatuen arteko aldea.

- Ekainaren 20ko Legegintzako Errege Dekretuko –Lurzoruaren Legeko Testu Bategina onetsi zuena– 6. artikulua interpretatzean, eta ez 8/2007 Legearena, indargabetua gelditu baitzen, ezin da esan, oinarritzko araudia bada ere, konpentsazio batzordeak publikotasunaren eta lehiaren printzipioei jarraitzea behartuta daudela; are gehiago kontuan hartzen badugu artikulua berak ezartzen duela prozedura publiko hori erabiliko dela aplikatzekoa den legedian xedatutako baldintzetan, legedi horrek lurzoruaren jabeen ekimenaren alde ezar ditzakeen berezitasunak edo salbuespenak gorabehera.

Horri dagokionez, argia da hirigintzaren arloan aplikatzekoa den legedi autonomikoak, hau da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak, ez duela ezer esaten konpentsazio batzordeak kontratazio publikoaren printzipioen pean egon beharri buruz, baizik eta justu kontrakoa. Comptos Ganberako txostenak dio, era berean, Lurzoruaren Legeko 6. b) artikulua hirigintzaren arloko lege autonomiko gehien aldaketa eragin duela, baina, aldiz, arlo horretako Nafarroako araudiak, berriki aldaketa batzuk egin bazaizkio ere, ez dituela espresuki jaso Lurzoruari buruzko Legearen zehaztapen horiek. Eta, azkenik, Nafarroako hirigintza-zuzenbidean, konpentsazio batzordeak beti eremu pribatuan edo zibilean gelditu izan dira, baita Kontratu

Publikoei buruzko Foru Legea edo Lurzoruaren 2007ko Legea indarrean sartu eta gero ere.

Horrela, bada, alde honen ustez esandako guztiak aski izan behar luke ulertzeko, gutxienez, Nafarroako araudi autonomikoak aipamenik ez egitea salbuespen garbia dela lurzoruaren jabeen eta konpentsazio batzordeen alde, eta ez direla beraz kontratazio publikoaren xedapenen eta printzipioen pean gelditzen, eta bai, ordea, kontratazio sistema pribatuaren pean.

Azaldu dugun guztiagatik, bat baldin bagatoz ere behin-behineko txostengilearekin gai juridiko oso eztabaidatua dela esatean, eta errespetatzen badugu ere txostenak hartu duen irizpidea, hau da, zuzenagoa dela konpentsazio batzordeek kontratazio publikoaren araudiari jarraitzea, uste dugu argi gelditu behar lukeela Circuito de Los Arcosok gai honetan zer jarrera duen, eta, halaber, txostenean agertu beharko luketela txostengilearenekin bat ez datozen irizpideak, argi gera dadin gaiari buruzko eztabaida, baina baita banaketa-areako ("Los Arcosko abiadura-zirkuitu iraunkorraren udalez gairidiko plan sektorialeko lur urbanizagarria"-izenekoa) Konpentsazio Batzordeak eginikoen legezketasuna.

HIRUGARRENA.- Zenbait aprobetxamendu-unitateren jabetza zehaztugabea

Behin-behineko txosteneko V. epigrafeko B letran, eta VI. epigrafeko 3.2 idatz-zatian, honakoa esaten da: *zenbait operazio egin diren moduagatik, iruditzen zaigu 6.477 aprobetxamendu-unitateren jabetza ez dagoela ongi zehaztua.*

Horri buruz, honakoa esan behar dugu:

6.477 aprobetxamendu-unitate horien jabetza zehaztu gabe dago, hasteko eta behin, hasieran ordainketa batera egin ziotelako Construcciones Samaniegok eta Circuito de Los Arcosok Udalari, aprobetxamenduaren % 10eko nahitaezko lagapenaren ordainetan, eta ordainketa hori, osorik, Construcciones Samaniegok bakarrik egin beharrekoa zen; izan ere, Construcciones Samaniego izan zen, lurzatiak berrantolatzeko proiektua oinarri, Udalari lagatako aprobetxamenduak eskuratu zituen. Txostenean ongi adierazten denez, ordainketa hori egitean kontuan hartu zen eraiki-garritasunaren banaketan bakoitzak zer partaidetza izan zuen, eta proportzio horretan egin zen ordainketa; Circuito de Los Arcosi, horrela, lagatu beharreko % 10aren ondoriozko aprobetxamendu-unitate guztietatik, 2.766 aprobetxamendu-unitate dagozkio.

6.477 arteko gainerako aprobetxamendu-unitateak, hau da, 3.711 aprobetxamendu-unitate, lur-



zatiak berrantolatzeko proiektuan izaniko akats baten ondorio dira; izan ere, proiektu horretan, finka bat udalarena zela adierazi zen, eta finka hori, ordea, alde aurretik eskuratua zuen Circuito de Los Arcosek. Alde guztiak ohartu ziren akats horretan, eta Udalak akats hori konpontzea eskatu zuen.

Gai hori konponbidean jartzeko, honakoak jarri dira abian:

- Gaur egun, hasierako onespena jaso du lurzatiak berrantolatzeko proiektuaren aldaketak, non udalez gaindiko plan sektorialaren bidez sartutako aldaketak bilduko baitira –plan hori 2009ko irailaren 28an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak–.

- Halaber, eta Lizarrako Jabetza Erregistroarekin bat, behin betiko testua gauzatzen ari da bai lurzatiak berrantolatzeko hasierako proiektua inskribatzeko, bai aldaketaren behin betiko testua ere, non jasoko baita atzemandako akatsa, zuzendua izan dadin Konpentsazio Batzordeak Udalari eskatu dion baldintzetan.

- Konpentsazio Batzordea, aldi berean, sustatzen ari da aprobetxamenduen eskualdaketari buruzko eskrituraren aldaketa bat, jasota gera dadin errealitate berria, hau da, Circuito de Los Arcos sozietateak eskuratutako aprobetxamendurak Construcciones Samaniegori eskualdatu izana.

Horregatik guztiagatik, uste dugu, ez dadin nahasterik edo interpretazio okerrik gertatu, alegazioen puntu honetan azaldutakoak txostenean agertu beharko lukeela; izan ere, Konpentsazio Batzordeak eta hura osatzen dutenek badute operazio eta akats horien berri, eta, gaur egun, behar diren urratsak egiten ari dira akats horiek konpontzeko.

LAUGARRENA.- Eraikitzailearen etekinari buruz. Obraren exekuzioa

Ondorioak eta gomendio orokorrak biltzen dituen V. epigrafeko D letran, eraikitzailearen etekinari buruz ari delarik, espresuki adierazten bada ere ez dagoela etekin hori zehazterik ez delako eraikitzailearen kontabilitate pribatua ezagutzen, zerranda bat egiten da Construcciones Samaniego eta Circuito de Los Arcos, S.L.-ren arteko operazioekin.

Zerranda hori zuzena da, baina nahasbidera eraman dezake ez baitu espresuki aipatzen Construcciones Samaniegok kostu batzuk izan zituela zirkuituaren exekuzioan.

Egokia litzateke, alde honen ustez, gutxienez espresuki aipatzea badirela beste zenbait gastu ere, hala nola obra-ziurtagiriak eta kontratistak alde aurretik izan zituen gastuak, inork ez dezan

interpreta, horrenbestez, eraikitzailearen etekina dela txostenean zerrendatzen diren operazioen emaitza garbia.

Aurrekoarekin batera, eta argudio-ildo berean, txosteneko VI. epigrafeko 4. idatz-zatian esaten da ezen, eraikitzailearen kontabilitate datuak ezin badira ikusi, ez dagoela eraikitzailearen etekina zehazterik, eta, hala, parlamentu-taldeetako batek eskatutakoari erantzuteko, Circuito de Los Arcosen eta Construcciones Samaniegoren arteko finantza-fluxuak aztertzen direla, ahal den neurrian.

Alde honen ustez, fluxuok ezin dira alderatu, operazio bereziak baitira eta homogeneotasunik gabeak, alde batera utzita enpresa berak eginak badira ere bi egoera erabat ezberdinetan zegoela enpresa hori: batetik, Circuito de Los Arcos, S.L. sozietatearen bazkide gisa jokatzeko, bere ardurapean eta enpresa-arriskua hartuta, eta, bestetik, obren eraikuntzan aritzen zen enpresaburu gisa.

Edonola ere, Circuito de Los Arcos sozietateko bazkide gisa jaso dezakeen etekina, sozietate horren etekin-banaketa bidez eskuratuko du, eta orain arte ez da horrelakorik gertatu, eta epe labur eta ertainean ere ez da horrelakorik aurreikusten; eta eraikuntzan jarduten duen enpresa gisa ere, etekina izanen da zer alde dagoen exekututako obren ziurtagiriengatik kobratutakoaren eta eraikuntza-lan horretan izandako benetako kostu guztiaren artean.

Horri dagokionez, aipatzen da zer etekin gordina izan duen eraikitzaileak 2010eko urtarrilaren 31ra arte emaniko obra-ziurtagiriekin. Alde hau ez dago oso konforme etekin gordina horrela ezartzearekin, hau da, eraikitzaileak obra exekutatzean izan dituen kostuak jakin gabe, hala jakingo bailitzateke zein izan den etekin garbia; hala ere, alde honi interesatzen zaiona da azpimarratzea obra, betiere, kontrol zorrotzekin exekutatu dela, eta merkatuko prezioetan, eta uste dugu hala agertu beharko lukeela txostenean; eta txostenean agertu beharko luke, era berean, merkatuko prezio horiek berretsi egin zirela proiektuaren zuzendaritza integraleko teknikariek hasieran egin zituzten txostenetan, eta teknikari horien independentzia ziurtatua baino ziurtatuagoa dago.

Iruditzen zaigu, eraikitzailearen etekina aztertzen delarik atal horretan, argi gelditu beharko lukeela lortutako etekin posiblearen zatirik handiena, hots, obraren exekuzioaren truke jasotakoa, merkatuko prezio errealean oinarritzen dela, eta etekin hori dela beste edozein eraikitzailek eskuratuko zukeena.

Azaldutako guztiagatik,

Nafarroako Comptos Ganberari ESKATZEN DIOT:

Idazki hau epean eta forma egokian aurkeztu-tzat jo dezala, onar dezala, onar ditzala aurkeztu-tako alegazioak eta alda dezala, alegazioei jarrai-kiz, behin-behineko txostena, zeina Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2010ko ekai-naren 9an onetsi baitzuen, halako moduz non ale-gaziook kontuan hartuak izan daitezen Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onetsi beha-reko behin betiko txostenean,

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

SPRINeko zuzendari kudeatzailea: Pablo Romera Alonso

**COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA  
SOCIEDAD DE PROMOCIÓN DE INVERSIONES  
E INFRAESTRUCTURAS DE NAVARRA, S.A.-K  
(SPRIN) AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI**

SPRINek Los Arcosko abiadura-zirkuituko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei dagokienez, Comptos Ganberak honakoak zehaz-tu nahi ditu:

- LEHENBIZIKOA. Aprobetxamendu-unitateen eskualdaketa.

Lehenbizi adierazten denez, komenigarria iza-nen litzateke operazioa txosteneko legezko alder-diei buruzko ondorioetatik kanpo uztea.

Txostena koherentea da, aprobetxamendu-uni-tateen eskualdaketa bai V. epigrafean bai VI.ean, legezko alderdiei buruzkoan, sartzen baitu. Iruzkin hori alderdiei ekonomikoei buruzko iruzkin gisa egin zitekeen, baina uste izan dugu egokiagoa zela udalez gaindiko plan sektorialarekin eta hiri-gintza-operazioarekin lotzea. Edozein modutan, gure ustez, garrantzitsua ez da non aipatzen den, baizik eta gaiaren mamia.

Operazioa azaltzeko, aipatzen da desdoitze batzuk gertatu zirela aprobetxamenduetan, eta, horretarako, beste taula bat aurkeztu da, beste koefiziente batzuekin.

Aitortzen badugu ere udalez gaindiko plan sek-toriala salbuespenezko bidea dela eta balorazioak egitea zaila gertatu zela, ez da orain horren egoki-tasuna baloratzeko unea; izan ere, udalez gaindiko plan sektoriala Samaniegok sustatu zuen hasie-

ran, gero Circuito de Los Arcos bildu zen eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen.

Proposatutako moldaketek funtsezko aldaketa eragin zuten, eta ez dakigu Nafarroako Gobernuak plana, horrela, onetsiko ote zuen, eta Circuito de Los Arcos enpresak, proposatutako adibidearekin, aprobetxamendu-unitateak eskualdatu ordez, 60.000 AU eskuratu behar izanzen zituen zirkuitua eraikitzeko.

Begi bistakoa da aldea funtsezkoa dela.

Berriro diogu alde adierazgarriak daudela apro-betxamendu-unitateak eskualdatzeko erabilitako prezioaren eta gainerako eskualdaketatik erabili-tako prezioen artean.

- BIGARRENA. Konpentsazio Batzordearen obrak.

Gai oso eztabaidatua da doktrinaren aldetik, eta hala aitortzen da txostenean, non, besterik gabe, Comptos Ganberaren jarrera jasotzen baita, baina ez da adierazten Konpentsazio Batzordea-ren jokabidea ez dela legezkoa. Alegazioetan, Konpentsazio Batzordearen iritzia justifikatzen da, zeina ez baitator bat Comptos Ganberarenarekin.

- HIRUGARRENA. Zenbait aprobetxamendu-unitateren jabetza zehaztugabea.

Alegazioetan ematen den azalpenaren arabe-ra, akatsak gertatu dira operazio horietan; Kon-pentsazio Batzordeak eta hura osatzen dutenek ba omen dute operazio eta akats horien berri, eta ari dira behar diren urratsak egiten akats horiek konpontzeko.

- LAUGARRENA. Eraikitzailearen etekinari buruz.

Iruditzen zaigu ezen alegazioaren asmo baka-rra dela espresuki jasota uztea ziurtagirien truke kobratutakoak, betiere, eraikitzaileak alde zurratik eginak zituen gastuei dagozkiela:

Txostenean ez da besterik esaten; izan ere, ondorio nagusia da ez dagoela eraikitzailearen etekina zehazterik haren kontabilitatea aztertu gabe.

Horrenbestez, alegazioak txostenari gehitu eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Arartekoaren kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

#### I. Sarrera (35. or.).

I.1 Arartekoaren eginkizuna eta langileria (35. or.).

I.2 Ekonomia- eta kontabilitate-araubidea (35. or.).

I.3 Aplikatzekoa den araudia (36. or.).

#### II. Helburua eta norainokoa (36. or.).

#### III. Iritzia (36. or.).

III.1 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (36. or.).

III.2 Legezketasuna (36. or.).

#### IV. Finantzen egoera-orriak (37. or.).

IV.1 2009ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (37. or.).

IV.2 2009ko aurrekontuaren emaitza (38. or.).

IV.3 Diruzaintzako gerakina 2009ko abenduaren 31n (39. or.).

IV.4 2009ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua eta haren aplikazioa (40. or.).

IV.5 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (41. or.).

#### I. SARRERA

Comptos Ganberak Nafarroako Arartekoaren kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa, 2009ko ekitaldiari buruzkoa, egin du, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz. Fiskalizazio hori Comptos Ganberak 2010erako onetsitako jarduketaren programan sartu zen.

Azterketa-lana 2010eko maiatzean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Arartekoaren bulegoko langileek lan hau egitean emaniko laguntza.

#### I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izan du eginkizun nagusi.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta egindako zuzemenean berri ematen dio urtero erakunde horri. Egungo titularrak 2007ko martxoaren 22an izendatu zuten.

Eginkizun dituen gauzatzeko behar dituen aholkulariak (bost) eta langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik. 2009an, guztira sei pertsonak bete dituzte kargu horiek, eta langile horiek Nafarroako Parlamentuko konfiantzazko langileen araubideari lotzen zaizkio.

Arartekoaren 2009rako plantilla organikoak hamaika lanpostu ditu, sei behin-behinekoak dira eta bost funtzionarioak (administrazio-kudeaketako teknikari bat, hiru administrari eta gelazain bat). Urte amaieran, hutsik daude gelazainaren lanpostua eta administrari lanpostu bat, zeina lanaldi partzialeko aldi baterako langile batek betetzen baitu.

#### I.2. EKONOMIA- ETA KONTABILITATE-ARAU-BIDEA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastuak baimentzeko, kontratazioarako eta ondasun eta esku-bideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago; halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago.

Arartekoaren aurrekontu proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta bere kontuak Nafarroako kontu orokorren parte izaten dira.

Hona Arartekoaren kontu orokorraren osagaiak: egoera-balantzea, aurrekontuaren likidazio-egoera, ekonomia eta ondare emaitzako kontua eta oroitidazkia.

2009ko ekitaldiko datu azpimarragarri hauek adieraziko ditugu:

- Aitorturiko betebeharrak 1.032.260 euro egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 83koa izan da. 2008. urtearen aldean, ehuneko 5,53 egin dute gora.

- Hona kapituluaren arabera gastua: langileak (ehuneko 59), ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 28) eta inbertsioak (ehuneko 10).

- Aitorturiko diru-sarrerek 1.240.360 euro egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 99,98koa izan da. Diru-sarrera horien ia-ia ehuneko 100 Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik datoz. Zehazki, Nafarroako Gobernutik heldu diren transferentziek 1.240.282 euro egiten dute; horietarik 1.114.299 funtzionamendu-gastuetara bideratzen dira, eta 125.983 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.

- Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari 207.238,50 euro itzuliko zaizkio, ekitaldiko gerakin gisa.

### I.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Arartekoari 2009an aplikatzekoa zaion araudia ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

- Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Kontabilitate Plana, Parlamentuko Mahaiak 1994ko abenduaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan hau eginez, ondoko helburuak lortu nahi ditugu:

a) Arartekoaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatea-

ren finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) 2009an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino errespetatu duen entitateak.

Lanaren ardatza izan da kontu hori osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak diren aztertzea, bai eta haien dokumentu- eta frogaeuskarriak ere. Beharrezkotzat jo diren probak eta prozedurak gauzatu dira fiskalizazio lanaren helburuen gainean behar adina froga lortzeko.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, ganbera honetako fiskalizazio-eskuliburuan garatutakoak.

## III. IRITZIA

2009ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

### III.1. 2009ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Arartekoaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak modu arrazoizkoan islatzen ditu 2009ko abenduaren 31ko ondare eta finantza egoera, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa eta 2009ko ekitaldi amaierako ekonomi eta ondare egoera, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioekin bat.

### III.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2009ko ekitaldian zehar, Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izaipideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**

Ondotik doa, Nafarroako Arartekoaren finantzen egoera-orrien laburpena 2009ko ekitaldiari buruzkoa.

**IV.I. 2009ko GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****GASTUAK**

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)
1 Langileria gastuak	738.849,54	0,00	738.849,54	606.158,13	82,04
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	337.200,00	2.604,18	339.804,18	292.090,96	85,96
4 Transferentzia arruntak	38.500,00	0,00	38.500,00	35.290,45	91,6
6 Inbertsio errealak	92.700,00	6.682,45	99.382,45	98.720,25	99,13
7 Kapital transferentziak	15.000,00	00,00	15.000,00	0,00	0,00
8 Finantza-aktiboak	6.000,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00
9 Finantza-pasiboak	12.383,50	-9.486,63	2.896,87	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.240.633,04</b>	<b>0,00</b>	<b>1.240.633,04</b>	<b>1.032.259,79</b>	<b>83,20</b>

**DIRUSARRERAK**

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	100,00		100,00	39,30	39,30
4 Transferentzia arruntak	1.114.299,54		1.114.299,54	1.114.299,54	100,00
5 Ondare dirusarrerak	150,00		150,00	38,65	25,77
7 Kapital transf.	125.983,50		125.983,50	125.983,00	100,00
8 Finantza-aktiboak	100,00		100,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.240.633,04</b>		<b>1.240.633,04</b>	<b>1.240.360,49</b>	<b>99,98</b>

## IV.2. 2009ko AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia (2008)	Itxiera-ekitaldia (2009)
Aitorturiko eskubide garbiak	1.237.052 ,73	1.240.360 ,49
Aitorturiko betebeharrak	978.136,6 3	1.032.259 ,79
<b>Aurrekontu-emaiza</b>	<b>258.916,10</b>	<b>208.100.70</b>
<b>Doikuntzak</b>		
Sartutako kredituak finantzatzeko funtsak	1.971,01	0,00
<b>Emaitza doitia</b>	<b>260.887,11</b>	<b>208.100,70</b>

## IV.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2009ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia (2008)	Itxiera-ekitaldia (2009)	Aldea (%)
+ Kobratzeko dauden eskubideak	0,00	0,00	0,00
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	0,00	0,00	
(+) Aurrek. Diru-sarrerak: itxitako ekitaldiak	0,00	0,00	
(+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	0,00	0,00	
( + ) Ordainketen itzulketak	0,00	0,00	
( - ) Diru-bilketa zaileko eskubideak	0,00	0,00	
(-) egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0,00	0,00	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	33.406,11	83.840,70	150,9
(+) Aurrek. Gastuak: Aurtengo ekitaldia	25.969,50	76.363,05	
(+) Aurrek. Gastuak: itxitako ekitaldiak	0,00	0,00	
(+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	7.625,83	7.477,65	
(+) Diru-sarreraren itzulketa	0,00	0,00	
(-) egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-189,22	0,00	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	294.293,22	291.941,40	-0,80
I. Diruzaintzako gerakin atxikia (kreditu gehikuntzak)	0,00	862,20	
II. Diruzaintzako gerakin atxiki gabea	260.887,11	207.238,50	
= Diruzaintzako gerakina, guztira (1-2)	260.887,11	208.100,70	-20,23

## IV.4. 2009ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA HAREN APLIKAZIOA

	2009	2008		2009
<b>GASTUAK</b>	<b>934.400</b>	<b>961.217</b>	<b>DIRUSARRERAK</b>	<b>1.240.360</b>
Zerbitzuen funtzionamendu gastuak eta gizarte prestazioen gastuak	898.249	895.236	Ohiko kudeaketako beste sarrera batzuk	78
Pertsonal-gastuak	606.158	596.269	Entitatearentzat eginiko lanak	39
Beste gastu batzuk, kudeaketa dela eta	292.090	298.967	Beste interes eta antzeko diru-sarrerak	39
Transferentziak eta dirulaguntzak	35.290	33.871	Transferentziak eta dirulaguntzak	1.240.282
Transferentzia arruntak	35.290	33.871	Transferentzia arruntak	1.114.299
Kapital-transferentziak	0	0	Kapital-transferentziak	125.983
Ezohiko galerak eta gastuak	860	32.110	Ez-ohiko irabazi eta diru-sarrerak	0
Ibilgututik heldu diren galerak	860	19.336	Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrera eta irabaziak	
Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak	0	12.774		
<b>AURREZKIA (mozkina)</b>	<b>305.960</b>	<b>276.880</b>	<b>DESAURREZKIA</b>	

## Emitzaren aplikazioa-2009

Emitza ekonomiko eta ondarekoa	305.960,31
Kreditu-gehikuntzak	0,00
Ondarea	-97.859,61
* Inbertsioen altak (98.720,25)-Bajak (860,64)	
Emitza ekonomiko eta ondareko doituak	208.100,70
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	-862,20
Ogasun publikoari itzuli beharreko funtsak	207.238,50



## IV.5. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA		
Deskribapena	Zenbatekoa itxiera-urtean (2009)	Aurreko urteko zenbatekoa (2008)
A) Ibilgetua	791.663,22	693.803,61
Ibilgetu materiala	758.930,71	664.089,14
Ibilgetu ez-materiala	32.732,51	29.714,47
B) Zirkulatzaila	291.941,40	294.482,44
Zordunak	0,00	189,22
Kontu finantzarioak	291.941,40	294.293,22
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.083.604,62</b>	<b>988.286,05</b>

PASIBOA		
Deskribapena	Zenbatekoa itxiera-urtean (2009)	Aurreko urteko zenbatekoa (2008)
A) Funts berekiak	792.525,42	693.803,61
Ondarea	791.663,24	693.803,61
Bestelako funts berekiak	862,20	0,00
B) Epe laburreko hartzekodunak	291.079,20	294.482,44
Ekitaldi korrontean aitortutako betebeharren hartzekodunak	76.363,05	25.969,50
Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	7.477,65	7.625,83
OPA, kreditu itzulketa dela eta (itzuli beharreko gerakina)	207.238,50	260.887,11
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.083.604,62</b>	<b>988.286,05</b>





